

## ELKARRIZKETA

Aranzadi ikastolako sorreratik dauden hiru irakaslerekin > 14-16

## 1991KO KILOMETROAK

Euria egin arren, arrakastatsua izan zen Bergarako Kmk > 35-36

## KILOMETROAK MUNDUAN

Kilometroetako kamisetak banatu dituzte mundu osoan barrena > 44

## KILOMETROAK 08

Datorren urteko Kilometroak Irurako ikastolak antolatuko du > 46

## KILOMETROAK 07 > EUSKALTZALEEN BILGUNEA

# Sei zerbitzuguneko ibilaldi urbano eta laua gaurko Kilometroetarako

**MUSIKA** 20 musika talde eta bakarlaritik gora sei gunetan: Esne Beltza, Pantxoa eta Peio, Anje Duhalde, Kauta, Trikizio, Sagarroi, Anari, Rauxa...

**HIRU JANTOKI** Gune guztietan dago jatekoa eta edatekoa, eta beste hiru jatekx daude: ikastolan, Labegaraietan eta frontoian (sagardotegi menua)

**EDALONTZI BERRERABILGARRIAK** 150.000 edalontzi berrerabilgarri daude banatzeko; euro baten truke eskura daitezke, gero itzultzeko > 24-25

## Ongietorria egin digute Aranzadi ikastolako neska-mutikoeak

Astean barrena jo eta ke ibili dira Aranzadi ikastolako ikasle eta ikasleak ere gaurko ospakizunari begira. Abestia entseatu, marrazkiak egin, eraikina, gelak eta pasilloak atondu... Izan ere, haiek ere, gainerako boluntarioen moduan, gaurko dena prest laga dute, bertaratzen zarenok jai giroan egun ederra igaro dezazuen.

Jan eta edan neurrian, erabili edalontzi berrerabilgarriak, errespetatu zeure burua, ingurukoak eta ingurumena, eta disfrutatu, horretarako da-eta Kilometroak.



ONGI ETORRI! Argazkirako dotore eta alaitsu jarri zaizkigu Aranzadi ikastolako ikasleak.

XABIER URTZELAI

# LEIZE

Secundino Esnaola 13  
DONOSTIA

Fraiskozuri 5  
BERGARA

Olarte 5  
ARRASATE

Korreo 19  
TOLOSA

Sagardotegi 2  
LASARTE

www.leizemoda.com





**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

Ílusiorantz  
1, 2, 3, 4, 5...  
kilometro



Arrasate • Oñati • Eskoriatza • Goierri • Bidasoa

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA **10**  
URTE  
zurekin, geroa lantzen



Angel Mari Eguren eta Patricia Urrutia > Aranzadi ikastolako presidentea eta zuzendaria

# "Urteko lana borobiltzeko jendeak jaiarekin gozatzea bakarrik falta da"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Joan den urtean Oartzungo ikastolaren lekukoa jaso zutenetik, buru-belarri ibili dira lanean Bergarako Aranzadi ikastolan. Azkenean iritsi da eguna eta Patricia Urrutia eta Angel Mari Egurenek haxe eskatzen dute: "Eguraldiak laguntzea eta datorren jendeak jai giroan gozatzea egun osoan, goizetik".

**Zer dakarkio domekako Kilometroak jaiak Aranzadi ikastolari?**

Patricia Urrutia: Aukera ederra da gure proiektuaren inguruan jendea biltzeko. Nolabait, beharrezkoa da Kilometroak jaiaren bitartez sostengu ekonomikoa lortzea, baita ikastolak eskaintzen duen ikas eredu eza-gutzera ematea... Ikastolen proiektua ezagutzera emateko aukera aproposa eskaintzen du jai honek. Urtean zehar eta hasieratik izan duen arrakastak jendeak bat egiten duela erakusten du. Ikastolen jai herriaren jai izatea nahi dugu eta normalizazio mailan beste urrats bat eman, ahal den neurrian erdal hiztunak euskarara erakarrit.

**1977an ospatu zen lehen Kilometroak, Beasainen. Ordutik hona, Kilometroak jaiaren helburuak berbera izaten jarraitzen du?**

Angel Mari Eguren: Nik uste dut baietz. Gure kasuan, hasierako asmoa haxe izan zen: Seminarioko eraikineko lagapena zeterrela eta, Kilometroak antolatzea eskatu genuen, bertan egin beharreko berrikuntza lanei aurre egin ahal izateko. Helburua bertan mantentzen da. Ikastolako instalazioak berritzeko erabiliko dugu jasotakoa dirua. Seminarioren lagapena bere onera etorriko dela uste dugu, eta berrikuntzak eta aldakuntzak beharrezkoak izango dira epe motzera. Horrez gain, lehen esandakoa: guretzat berebiziko garrantzia dauka ikastolaren inguruan atxikimendua jasotzeak. Guraso, irakasle, langile, ikasle edo ikasle ohien partetik babesa, atxikimendua jasotzea oso pozgarria da guretzat.

**Oiartzunen lekukoa jaso zenuenetik, ikasturte berezia izango zen azkena, ala?**

P.U.: Duda barik, beste ikasturteekin konparatuta ikasturte berezia izan da. Elkarlanean gus-

tura ibili gara denok jai antolatzeke lanetan, ilusioz beteta. Lan mordo eginda ere bai... Orain, gehiena eginda dago eta domekan egun polita ospatzea besterik ez da geratzen. Ea herritarrek zein kanpotik datozenek egunarekin gozaterik duten.

**Eta ikastola barruan zelan bizi izan duzue? Nolako erantzuna izan da guraso, irakasle, langile eta ikasleen partetik?**

A.M.E.: Parte-hartze eta inplikazio aldetik ezin gara kexatu, espero genuena baino hobea izan da eta. Alde horretatik, ikaragarria izan da, eta guztien laguntza eskertu beharrean gaude. Urtean zehar batzorde ezberdinetan ibili da jendea lanean, aldiro-aldirio etortzen egon da, ilusioz, eta erantzuna primerakoa izan dela esango nuke. Azkeneko txanpa honetarako herrira zabaldu-tako deialdiak ere erantzun bikaina izan du, eta horrek, hain zuzen ere, indar handia eman digu domekako jaiari begira.

**Herri osoa inplikatzeko ezinbestekoa da horrelakoetan, ala?**

P.U.: Bai, hala da. Batez ere, gaurko egunak eskatzen du jende kopuru handia erabiltzea. Herritar ugari lan egingo dute gaur; boluntarioak lortzeko deialdiari primeran erantzun dio jendeak eta aste bukaeran (astelehena barne) 2.000 lagun inguru arituko dira lanean: txosnetan, zirkulazioa bideratzen, ingurumen taldean eta abar. Jendearen partetik horren erantzun ona jasotzeak poz handia eman digu eta horrelakoetan ilusio berri bat sortzen da aurrera jarraitzeko. Jai jendetsua izatea eta giro onean ospatzea, hori da helburua.

**1991n ere Bergaran ospatu zen Kilometroak. 16 urteren ondoren, espero zenuen jai antolatzea berriz?**

A.M.E.: Jai antolatzeke eskera ikastola askok egiten dute, horren premia askok dutelako eta, zoritxarrez, hori delako ikastola askoren egoera: diruaren premia izatea. Egia esateko, ez nuke esango jaiaren ardura guri ematea sorpresa izan zenik, ikusita Seminarioko lagapena zeterrela eta berrikuntza lanak beharrezkoak izango zirela. Hasierako faseko proiektuarekin hasita



Angel Mari Eguren eta Patricia Urrutia, Bergarako Munibe plazan.

GOIENKARIA

**"Gure instalazioetan berrikuntzak eta aldakuntzak beharrezkoak izango dira epe motzera"**

**"Ea arratsalde partean bueltatxo bat ematerik daukagun, sakelakoa aldean dugula sikiera..."**

PATRICIA URRUTIA

**"Parte-hartze eta inplikazio aldetik ezin gara kexatu, espero genuena baino hobea izan da eta"**

**"Orain, gaurko egun handia bakarrik falta da urte osoan egindako lan bikaina borobiltzeko"**

ANGEL MARI EGUREN

ginen eta bagenekien bigarren bat etorriko zela. Egia da beste ikastola batzuek aukera berberak dituztela, eta guztien egoera eta beharra aztertzen ditu federazioak. Azken balorazioa egitean, erabakia gure aldekoa izan da eta guretako bultzada ederra dakar horrek.

**Antolaketaren aldetik, zerk eman dizue buruhauste handien?**

P.U.: Egia esateko, azken urteotako esperientzia guztiz baliagarria izan zaigu eta alde horretatik ez da aparteko arazorik egon, batzorde ezberdinetan dena ondo lotu dutelako. Azken finean, ondo funtzionatzen duenari eutsi eta aurreko urtean sor zitezkeen arazo txikiak zuzentzea da kontua.

**Orain arte egindako ekitaldien balorazioa zelakoa da?**

A.M.E.: Balorazioa positiboa da ekitaldi ezberdinetan erantzun ona jaso dugulako: Jam artoan egin genuen moda desfilean, pilota jaialdiak ere ikusmin handia piztu zuen, kantuaren aurkezpena egin genuenean ere frontoia bete egin zen... Orain, gaurko egun handia bakarrik falta da urte osoan egindako lan bikaina borobiltzeko.

**Iaz, Oartzungo Kilometroetan hasitako ekimenari jarraitpena emango diezue...**

P.U.: Bai, hondakinik ez sortzeko asmoz, iazko Kilometroetarako egindako ekimena errepikatuko dugu Bergaran. Edalontzi berrerrabilgarriak banatuko ditugu, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren anagramarekin. Eta, era berean, *Primeran pasa pasatu gabe*, Ikastolen Elkartek eta Askagintzak kontsumo arduratsua bultzatu nahi dute. Alkoholaren kontsumoa zentzuduna izatea da kontua, eta errespetuaren kontzeptua lantzea, norberarekiko errespetua, ondokoarekiko eta ingurumenarekiko baita, nola ez.

**Bukatzeke, jaiaz gozaterik izango duzue domekan?**

P.U.: Tartetxo bat atera behar dugu ba... Goizean protokoloak agintzen du eta zaila da... Ea arratsalde partean bueltatxo bat ematerik daukagun, sakelakoa aldean dugula sikiera...

## Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

**ARGITARATZAILEA**  
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea (Nafarroa etorbidea 2. Arrasate).

**EGOITZA NAGUSIA**  
Barrenkalea 33 Bergara.  
943 25 05 01.

**ZUZENDARIA**  
Eneko Azkarate  
**ERREDAKTORE BURUAK**  
Monika Belastegi  
Leire Kortabarria

**SAILETAKO ARDURADUNAK**  
Alex Azkarate (Diseinua)  
Mireia Larrañaga (Publizitatea)  
Sergio Azkarate (Hizkuntza)  
Marta Leturia (Harpidetza eta banaketa)

**ERRDEDAKZIOA**  
Edu Mendibil, Usoa Agirre, Iker Barandiaran, Xabi Urtzelai, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Arritxu Barruso, Miren Arregi, Arantzazu Ezkibel, Maider Arregi, Irati Agirreazaldegi

**MAKETAZIOA**  
Oxel Arrieta  
**PUBLIZITATEA**  
Ziortza Martin  
Amaia Mundiñano  
Itxaso Berezibar  
Fausto Berazadi

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
**LEHENDAKARIA**  
Estepan Plazaola  
**ZUZENDARI NAGUSIA**  
Iñazio Arregi



ARANAZADI &gt; IKASTOLA ETA HELBURUAK

# Kilometroekin, ikastolen alde herrian jendea batzea helburu

Aranzadi ikastolako instalazioak berritzea eta ikastolen aldeko proiektuaren alde jendea batzea dira aurten, besteak beste, Kilometroen helburuak

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Orain dela 31 urte sortu zen Aranzadi ikastola, garai hartako ikastolen aldeko mugimenduaren barruan. Herrian lehendik zeuden umeendako euskarazko eskola hiru –tartean Luis Elizalde ikastola– ordezkatzuz sortu zuten herritarrek, gurasoek.

Gurasoak dira Aranzadi ikastolako parte garrantzitsua. Herri Onurako Irakaskuntza kooperatiba da. 692 ikasle eta 455 guraso ditu. 2-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintza dauka. Eta 0-2 ziklorako elkarlan akordioa sinatua dauka Haurtxoa Haurtzaindegiarekin; bertan, Aranzadin lantzen den Hezkuntza Proiektu bera garatzen da. Bi erakin erabiltzen du Aranzadi ikas-

tolak: Errege Seminarioa eta Martinez Irala. Errege Seminarioan 505 ikasle eta 27 talde dauzka; Martinez Iralan, hamar ikasle talde (187 ikasle).

## ELKARLANA ETA ELKARBIZITZA

Hezkuntza arautuaz gain, beste zerbitzu osagarri hauek eskaintzen ditu: jantokia, garraioa, ume zaintza zerbitzua, harrera gela. Eskola orduz kanpo ekin-tza osagarriak ere antolatzen ditu: ingelesa, antzerkia, dantza, kirola...

Bere proiektu pedagogikoak elkarlan eta elkarbizitzari garrantzi handia ematen dienez, honakook ere lantzen dituzte Aranzadi ikastolan: gurasoendako ikastaroak, gurasoendako heziketarako apunteak, elkarbizitzarako programa propioa, atzeritarren integratziarako plana, eleaniztasuna...

## KILOMETROAK ZERTARAKO?

Aurtengo Kilometroetan batzen den dirua instalazioak berritzeko inbertitutako du Aranzadi. Obra horien bidez, alde batetik, hainbat berrikuntza pedagogiko ezarri ahal izateko espazio berriak egokituko dituz-



KILOMETROEN ATARIAN Aranzadi ikastolako neska-mutikoak astean ateratako argazkian, gaurko egunaren zain. GOIENKARIA

te eta, bestetik, irisgarritasuna hobetu eta hainbat instalazio berriztatuko dituzte.

Kilometroak 07k, helburu ekonomikoez gain, baditu beste batzuk ere. Esate baterako, ikastolen mugimendua eta proiektuak ezagutzera ematea ere bada Kilometroen helburua... Eta baita jendea euskararen alde, ikastolen alde, biltzea: "Aranzadi eta bere hezkuntza komunitatea, ikasle ohiak eta gainontzeko laguntzaileen arteko harremana eta atxikimendua gorpuztea eta areagotzea. Eta, normalizazio mailan beste urrats bat emanaz, erdal hiztunak euskarara hurbiltzen jarraitzea".

## BESTELAKO HELBURUAK

### Ikastolaren proiektuaren alde jendea bildu

Bergaran ikastolen proiektuaren alde jendea biltzea da aurtengo Kilometroen beste helburuetako bat, antolatzaileen esanetan. "Gaur Kilometroen festa egunean ez ezik, urte osoan barrena eta aurrerantzean ere bai". Ikastolako arduradunek dioten moduan, "Kilometroak jaia, ikastolen jaia, herriaren jaia ere izatea, hau da, herriak eta herriarendako elkarlanean garatutako proiektua izatea, egitarau zabal eta oparora prestatuz". Eta baita "Bergarako herriaren eta Aranzadi ikastolaren arteko elkarkidetzaren trinkotzea eta herriaren interes orokorren alde aritzea".

Helburu horiek, neurri handi baten, bete egin dira urtean barrena Bergaran Kilometroen alde antolatu diren ekitaldi jendetsuekin. Era guztieta-ko ekitaldiak egin dituzte. Herritarrek eta herriarendako. Eta oihartzun handia izan dute. Ez hori bakarrik, giro berezia sortu da ekitaldiok esker, batez ere ikastolako aita-ama, aitajaun-amandre, ume, irakasle, ikasle eta langileen artean. "Horregatik bakarrik merezi izan du", diote antolatzaileek.

# edertu

masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79

barrenkale 23 Tel. /faxa: 943 76 29 65

BERGARA



**ims** GROUP

**Aceros**  
**IMS** Int., S.A.



# Goiz Argi

**Etkez etxeko laguntza**

- Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
- Pertsonal aditua.

Simon Arrieta 2a (Solairu artea B)  
Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23



**Sukaldeko altzariak eta osagarriak**

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO



**Finantzaketa kuota pertsonalizatuak**



KILOMETROAK DATUTAN &gt; BAZKALTZEKO LAU MENU AUKERAN, HIRU JANTOKITAN

# Gaurko jaian lanean jardungo dute herriko zein kanpoko 1.500 boluntariok

Bost denda jarriko dituzte ibilbidean zehar arropa eta osagarriak saltzeko

Labegaraieta, Aranzadi eta frontoiko jantokietan 1.050 menu emango dituzte

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Kilometroak jai handia da eta dena behar bezala atera dadin lanean jardungo dute herriko zein kanpoko 1.500 boluntariok, zirkulazioa zuzentzen, txosnetan, txartelak saltzen, segurtasuna antolatzen eta abar. Urtean zehar ere boluntario mordoa ibili dira urriaren 7ari begira lanean: 250 bat lagun, hain zuzen ere.

## 30.000 ARROPA ETA OSAGARRI

Urtean zehar boluntario gehien mugitu dituen lantaldea edo batzordea izan da salmentaz arduratu dena; 156 lagunek lan egin dute batzorde horretan. Horieta-tik 80 lagun ibili dira Gipuzkoa osoan zehar, herririk herri, jairik jai, Kilometroetako materiala saltzen; Bergarako dendaz arduratu dira 40 boluntario eta 36 lagunek lanean jardun dute biltegian.



ARROPA Bost denda daude zirkuituan zehar; argazkian, boluntarioak, biltegian materiala prestatzen.

A.I.

Arropa eta osagarri mordoa jarri dute salgai Kilometroei laguntzeko: 30.000, hain zuzen ere. Horrez gain, Gipuzkoa osoan tabernetan salgai jarri dituzte 20.000 metxero. Gaur bertan bost denda jarriko dituzte Kilometroetako material hori guztia saltzeko. Datorren astean Bergarako denda zabalik egongo da, geratu dena saltzeko.

## 150.000 EDALONTZI

Aurten bigarren aldiz erabiliko dira edalontzi berrerabilgarriak Kilometroak jaian. 150.000 edalontzi egongo dira, guztira; horietatik 15.000 izango dira katxi edalontziak, 1,4 litrokoak. Edalontzia eskuratzeko txartela erosi behar da, euro baten truke; gero, txosnan, edariaren txartelarekin batera erakutsi behar da. Egu-

naren bukaeran edalontzia bertan laga daiteke eta euroa berreskuratu. Edalontzi horiek guztiak, ondo garbitu eta gero, ikastolen aldeko beste jai batzuetan erabiliko dituzte.

## HIRU JANTOKI

Eserita eta lasai bazkaltzeko hiru jantoki izango ditugu: Labegaraietako kiroldegian, Aranzadi

DATUA

# 13.171

## KILOMETRO HERRIZ HERRI

Arropa eta osagarriak saltzen ibili dira iazko abendutik eta guztira egin dituzte 13.171 kilometro. Zozketatuko duten automobilaren txartelak saltzen, bestalde, 4.000 kilometro egin dituzte.

ikastolako zutabe patioan eta frontoian. Azken horretan sagardotegi menua jateko aukera izango dugu. Hainbat menu ezberdin daude aukeran, 12 ta 24 euro artekoak. Guztira, hiru jantokietan 1.050 menu emango dituzte antolatzaileek. Ogitarteko aukera zabala ere egongo da txosnetan: 30.000 ogitarteko emateko gertu daude antolatzaileak.



## AUTOMOBILAREN ZOZKETA, GAUR

Ford Focus C-Max automobila zozketatuko dute Kilometroetako antolatzaileek. Jo eta su ibili dira herririk herri, apiriletik hona. 65.000 txartel atera zituzten antolatzaileek.

Zozketa izango da gaur, notarioaren aurrean. Bihar, astelehena, emango dute zenbaki saritua- ren berri komunikabideetan. Irabazleari ez diote emango hara eta hona ibili den automobila, berri-berria baizik.



Barenkale 7, 1. esk. 20570 Bergara  
TFNO 943760346 FAX 943767181  
E-MAIL: iba.beb@telefonica.net



IÑAKI BERASATEGI  
ELISABETH ENA  
XABIER BERASATEGI  
IÑAKI ARREGI  
IKER ELGUERO

# DESA CRISTAL



CRISTALAUTO  
cristaleros del automóvil

**AUTOMOBILETARAKO**  
KRISTALERIA  
Luna-muntatze berehalakoa:  
autobus, kamioi,  
turismo eta abarrentzako.

**SOLAR-CHECK LAMINAREN**  
INSTALATZAILE OFIZIALA  
(IATerako egiaztagiriarekin)

**PARABRISERAKO**  
KOLPE-KONPONKETA

Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia  
(Irurako zuzengunean)  
Tel.: 943 69 16 16  
20271 IRURA

**Argi daukagu!**

Santalaitz 6, 5. pabilioia  
(IAT-ITVtik 100 m-ra)  
Tel.: 943 76 36 09  
20570 BERGARA



autopullmans  
**Araba**



  
**Argi daukagu**

**Eskurtsioak eta bidaiak  
edozein tokitara**

Rufino Muñoz

ANGIOZAR 3-1  
20578 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 45

SAN JUAN AUZOA 11  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 55 70



IKASLEAK &gt; ARANZADI IKASTOLAKOAK, KILOMETROAK JAIARI BEGIRA

# Kultura eta kolore askotariko ikasleak Gipuzkoako ikastolen aldeko jaian



**Mikel Edroso**  
10 urte

Mikelek azaldu digu pozik dagoela Kilometroak Bergaran egingo dituztelako. Esan digunez, kalean ibiliko da lagunekin, batera eta bestera, zer dagoen ikusten. Gainera, zirkuituari itzulia ere egingo diola esan digu Bergarakoak.



**Ubaid Ullah**  
8 urte

Ubaid pakistandarra da, eta oraingo asteen itzuli da ikastolara, opor luzeak izan ditu-eta. Urte eta erdi darama Ubaidek Bergaran, eta denbora tarte horretan ondo ikasi du euskara: "Domekan kalean ibiliko naiz, lagunekin, zer dagoen ikusten".



**Tatiana Mahecha**  
12 urte

Kolonbiarra da Tatiana, eta dagoeneko bi urte daramatza Bergaran. Tatianak ere ondo egiten du euskaraz, eta gogotsu hartuko du domekako jaia. Esan digunez egun osoa egingo du kalean, puzgarrietan, Betizukoen jaian...



**Uxue Azkarate**  
10 urte

Uxue lanpetuta ibiliko da domeka goizean, Moises Azpiazu dantza taldeko lagunekin ibiliko da dantzan, eta gero, panderoa ere jo beharko du, Usondon. Arratsaldea, berriz, lagunekin zirkuituari itzulia emateko aprobetxatuko du.




**Iker Elizburu**  
10 urte

Iker Elizburuk eguraldiaren gainean egin digu berba, ondo daki-eta domekako eguna biribila izateko eguraldiak lagundu egin beharko duela: "Ona egingo du, seguru, hori da behar duguna". Koadrilakoekin ibiliko da kalean.



**Asma Mehdaoui**  
8 urte

Asma aljeriarra da, eta urtebete Valentzian egin eta gero etorri da Bergarara. Hiru aste daramatza gure artean, eta gustura dagoela esan digu. Ez du domekako jaia ezagutzen, ez daki zer egingo duen egun horretan, baina kalean ibiliko da.



**Estrella Charca**  
6 urte

Estrella boliviarra da, eta iaz etorri zen gurera. Lotsatia da, baina ondo erantzun ditu guk egindako galderak. Estrellak ere ez daki zelan igaroko duen domekako eguna, baina gauza bat dauka argi: ez ditu pailazoak ikusiko, ez ditu atsegin.




**Qingyu Jiang Pan**  
5 urte

Qingyu-ri ez diogu berba bakarria atera, eta irakasleek esan digute, brometan, oraindik ez diotela mingaina ikusi. Hori bai, erretratu ateratzekoan ondo egin ditu modelo lanak. Buruarekin baietz esanda adierazi digu domekan etorriko dela Bergarara.

GRUPO **GEM** TALDEA

## Zabalkunde haundiko enpresa, beti zure ondoan



Gipuzkoako kontseziarioen sare ofiziala



OPEL



CHEVROLET



SAAB



HYUNDAI



LANCIA



TOYOTA

**GIAUTO**

ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA  
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA  
Tel. 902 345 123 · www.giauto.es  
clientes@giauto.es

EIBAR · OLABERRIA  
Tel. 902 345 225 · www.red-chevrolet.com  
clientes@giauto.es

BERGARA  
Tel. 943 763 347 · www.giauto.redsaab.com  
clientes@giauto.es

**MENDAUTO**

ELGOIBAR · DONOSTIA · IRUN · LASARTE  
ARRASATE · TOLOSA · BEASAIN  
Tel. 902 345 335 · www.mendauto.com  
hyundai@mendauto.com

**KUAUTO**

DONOSTIA · LASARTE · ELGOIBAR  
Tel. 902 345 365 · www.kuauto.net  
kuauto@kuauto.net

**EUSKOAUTO**

PASAIA · ELGOIBAR  
BERGARA · OLABERRIA  
Tel. 902 345 245 · www.euskoauto.toyota.esw  
toyota@euskoauto.com





# LACCOR

San Juan Auzoa z/g  
20570 BERGARA  
Tel. 943 76 90 30  
Faxa: 943 76 53 87

grupo  
**amaral**  
www.amaralekua.com



Poligono Basabe 20 A, Pab 4  
Aptdo 114  
20550 Aretxabaleta  
Tel 943 77 07 06  
Fax 943 71 18 05  
camaral@amaralekua.com  
www.amaralekua.com

- eraikuntza eta zaharberritze lanak
- urbanizazioak eta obra publikoak
- proiektuak eta obra zuzendaritza





MUSIKA &gt; ESTILO ASKOTARIKO EMANALDIK KILOMETROETAN

# Gustu zein adin guztietarako musika eskaintza zabala gaur

Denetariko musika estiloak entzungai Bergaran: rocka, trikia, metala, elektronika, ska, reggaea, folka, hip-hopa eta beste

IKER BARANDIARAN &gt; BERGARA

Kilometroetan adin eta mota askotako euskaltzaleek esku hartzen dute. Eta badira ikuskizunengatik edo jaiarengatik hurbiltzen direnak ere. Ez da harrizkoa, ekitaldietan oso aberatsak dira eta egun zehatz horiek. Bergaran, adibidez, musika eskaintzari erreparatzen badiogu, mota askotako taldeek emango dituzte kontzertuak.

MUSIKA DANTZAGARRIA, BEROA

Musika dantzagarriak leku nabarmena izango du herrian zehar banatutako agertokietan. Horra hor, esaterako, Tolosaldeko Mulambo perkusio taldea, Portugalgo eta Afrikako herri ezberdinetako batukada eta erritmoak batuko dituen.

Musika exotikoari helduta, emango du zeresana Samarren ikuskizunak. Australiako didjeridu instrumentu bitxia dute oinarri, eta hortik abiatuta dantza egiteko musika, oso erritmikoa egiten dute. Euskaldunak dira musikariak, baina munduko beste punta batzuetako soinue-tan jantzita daude.

Elorriokoa da Trapatoni Circus Band. Baietz ikusle guztiak dantzan jarri! Rock, ska, reggae, saltsa, blues eta jazz estiloen *entsalada* egiten dute. Sagarroi, berriz, aspaldiko ezaguna da. Iñigo Muguruzak gidatuta, ska, reggae, cumbia eta bestelako doinu beroen trikimailu guztiak eza-gutzen dituzte honezkerok.

KATALUNIARREN ESPERIENTZIA

Kataluniarrek ere Kilometroetan esku hartzeko asmoa erakutsi dute, eta hala, hainbat ordezkari izango ditugu Bergaran.

HERRIKOAK

## Musikari bergararrak ere protagonista

*Argi da!* abestia egin duen Belceblues taldeaz gain, Bergarako beste talde batzuk ere igoko dira gaur agertokira. Nabarmenezkoa da, esaterako, Fly Shit taldea. Bergarako gazte batzuek osatu zuten proiektuak leku nabarmena hartu du penintsulako hardcore talde sendoen artean.

Emon, aldiz, oso talde berria dugu. Sei musikari gazte osatzen dute, eta triki, folk, reggae, ska eta pop doinuak lantzen dituzte. Gogotsu dabilta jotzen.

Azkeneko eskaintza bergararra Aitzol Mujika bakarlariaren eskutik dator. Jeneralean, bakarrik igotzen da agertokietara gitarrarekin, baina gaurkoan talde bat izango du lagun.

Dusminguet taldearen babesa jaso duen Rauxa talde runberok Sona9 musika lehiaketa garrantzitsua irabazi berri du; eta lehenengo diskoa Bergaran aurkeztuko dute. Handik dator kigu, baita ere, Nour, Cheb Balowski taldeko abeslariaren proiektua. Alboan, Color Humano eta Todos Tus Muertos taldeetako kideekin, rocka hip-hop eta elektronikarekin aberasten dute.

FOLKAREN IRAGANA ETA ORAINA

Ezin, bada, folk bako halako jaialdirik egin! Tapia eta Leturiak Jokinekin batera erromeria egingo dute; Pantxoa eta Peiok erakutsiko digute 70eko hamarkadako kantaldiek bizi-bizirik jarraitzen dutela; eta Oiartzungo Oinutsik talde gazteak bertso musikatuak eskainiko ditu.

BAKARLARIEN INTENTSITATEA

Bestalde, gero eta gehiago dira Euskal Herrian dauden bakarlariak. Horien isla ere izango da Bergaran, eta luxuzkoa, gainera: bluesaren, folkaren eta rockaren mugak apurtu dituen Petti musikari handi beratarra; eta Azkoitiko Anari hunkigarria. Azken horrek, gainera, alboan Inoren Ero Ni eta Bap! taldeko musikariak izango ditu, azkenaldian ohi duen moduan. Biak ere oso proposamen interesgarriak; lasaia entzuteko, baina gozagarri.

Gehiago ere izango dira: EH Sukarra, Kauta, Gose, Triki-zio, SKT Sekuentzia eta abar.




Rauxa talde kataluniarra.



Anari azkoitiarra.



Emon Bergarako talde gaztea.



Joseba Tapia.



Petti beratarra.



Gose hirukote arrasatearra.



## DEBAGOIENENKO INDUSTRIALDEA

Basabe Ind. E-O-10 • 20550 ARETXABALETA  
Tel: 943 79 62 80 • Faxe: 943 79 76 19  
debagoiena@industrialdea.spri.es



Aretxabaletako Udala



Arrasateko Udala



SPRI LUR



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Oñatiko Udala




BELMEK S.L.L. Doitasunezko Mekanizatuak




Telleria kalea 19, B-5  
20570 Bergara - Gipuzkoa  
Tel.: 943 76 94 60 - Faxe: 943 76 92 81  
e-mail: belmek@belmek.com  
www.belmek.com

E C A  
Empresa Registrada  
UNE-EN-ISO 9001:2000





Elgeta bidea, Post.130  
20570 **BERGARA** · Gipuzkoa  
Tel.: 34 943 764 844  
Fax: 34 943 765 047  
ttt@grupottt.com  
www.grupottt.com







GOIENA TELEBISTA GOITB da Goiena kooperatibako komunikabideetako bat; argazkian, errealizazio-gela, Arrasaten.

GOIENKARIA

DEBAGOIENA &gt; GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

# Goiena, euskararen eta Debagoieneko komunikazio premien zerbitzura

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak lanean dihardu eskualdean 2000 ezker

Tokiko izaeratik eta euskaratik abiatuta, ibarreko komunikazio beharrak asetzen ditu

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Debagoienak tokiko informazioa eta entretenimendua, bertako protagonistekin eta euskaraz, jasotzen du aspalditik; izan ere, eskualde hori aitzindaria da euskarazko tokiko komunikabideak bultzatzen. Herrietako

komunikabideak indartzeko eta garatzeko asmoarekin sortu zen Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte 2000. urtean, eta hark asetzen ditu, gaur egun, debagoienarren euskarazko tokian tokiko komunikazio beharrak.

Debagoieneko euskara elkarrekin sortu zuten Goiena. Kooperatiba bat bultzatu zuten, bertan eskualdeko udalak eta Goienako langileak integratzeko moduan, eta, gaur egun, hiru horiek dira Goienako bazkideak.

Goienaren balio garrantzitsuen artean daude euskarako konpromisoa, komunikazioa eta eskualdearen garapena. Bestetik, Goienaren misioa da Debagoieneko pertsona eta entitateen arteko komunikazio beharrak asetzea eta debagoien-darrei aisialdi, kultura eta presakuntzarako bideak eskaintzea,

euskaraz, elkarlanean oinarriturik eta era guztietako euskarri komunikatiboez baliatuz.

Debagoien osoari –Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati– eta Arabako Aramaiori ematen die zerbitzua.

**LAU KOMUNIKABIDE MOTA**

Goiena kooperatibak hainbat produktu ekoizten ditu.

Prentsan, GOIENKARIA aldizkaria kaleratzen du, egubakoitzeko eta asteleheneko edizioekin; 56 eta 32 orriko aldizkariak, hurrenez hurren. Egubakoi-

tzekoa doan banatzen da eta lider da bailaran, 19.000 ale banatuta eta 65.000 biztanlerengana iritsita. Astelehenekoa, berriz, ordainpekoa da eta 5.000 ale banatzen ditu astelehenero harpidedunen artean eta kioskoetan.

Arrasate Irratia hango Udaren jabegokoa da, baina Goienak kudeatzen du, eta astean 50 orduko barne emisioa dauka.

Telematikan, *Goiena.net* ataria dago, eta beste inork baino lehenago ematen ditu Debagoieneko albisteak.

GOITB bailarako telebista da Goienako beste zutabe bat.

## Zunbeltz

taberna

**BERGARA**

**ARREGI  
ARROZTEGIA**



**Tailerra:** Urteaga 20  
Tel./Faxa: 943 76 11 73

**Erakuslekua:** Bidekurutzeta 38  
Tel./Faxa: 943 76 31 03

**ITXAS  
EDER** **ARRAINAK**

Primitiva Morenoren oinordekoak

Arrain freskoa eta izoztua  
Mota guztietako mariskoak

**MARISKO HAZTEGIA**



Toki Eder kalea • BERGARA  
Tel.: Arraindegia 943 76 47 41 • Etxea 943 76 21 08 • Mobila 608 77 04 88



ferrovial

**CESPA**



- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Santalaiz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88  
mondragon\_cespa@cespa.es



KOMUNIKABIDEAK



Goienkaria.

OXEL ARRIETA

Goienkaria egubakoitzetan eta astelehenetan argitaratzen da. Debagoienean lider da: 65.000 irakurlerengana iristen da.



Arrasate Irratia.

GOIENKARIA

Arrasate Irratia Goienak kudeatzen du. 24 orduan emititzen du eta herriko berriak, Euskadi Irratikoak eta musika ematen ditu.



Goiena.net.

OXEL ARRIETA

Goiena.net ataria azkarrena da Debagoieneko albisteak ematen. GOITBko albistegia ere ematen du. Blog komunitate zabala, esteka asko... ere ematen ditu.

## GOITBk euskarazko beste kate batzuekin bat egiten du Tokiko elkartean

Goiena Telebista, GOITB, 2000ko maiatzean hasi zen lanean, Arrasate Telebista eta Atxabaltea Telebista zirenen eskarmentua eta baliabideak aprobetxatuz. Lau urtean nabarmen zabaldu da: etxeen %92ra heltzen da seinalea, eta zuntz optiko bidez ere hedatzen da. 60.000 biztanlerengana iristen da GOITB.

Orain, GOITB emisio digitalera pausoa emateko prestatzen dabil. Eusko Jaurlaritzak banatu berri ditu formatu digitalean emititzeko baimenak, eta GOITBk lortu du Debagoieneko lau lizentzietako bat. Beraz, digitalera derrigorrezko aldaketa egin behar denerako gertu egongo da GOITB.

Bestalde, GOITBren jardunean ezinbesteko da Tokiko elkarteko kide izatea. Elkarte horretako sortzaileetako bat izan zen GOITB. Euskara hutsean jarduten duten EAEko tokiko bost telebista eta Nafarroako bi batzen ditu, eta elkarren arteko elkarlana ahalbidetzen eta errazten du.

Alde praktikoan, norberak ekoiztutako saioak elkarrekin banatzen dituzte telebista horiek; horrela, nork bere ekoizpena kanpora hedatzeko eta gainerako telebistek euskarazko programazio luzeago eta osotuagoa izan dezaten. Modu horretara, GOITBk telebista digitalen arauak agintzen duen norberak ekoiztutako ordu kopurua lortzen du. Hala, gaur egun, astero ordubeteko emisioa batzen duten saioak trukatzeko dituzte elkarren artean; eta aurten, lehenengo aldiz, batera dabilta saio bat ekoizten, *Euskaldunak hizketan* izeneko, eta leku bakoitzeko edadetuak elkarriketak batzen dituen.



Tokiko promozionatzeko kanpainan, leku bakoitzeko ezaugarriak hartu ziren: Debagoienean, adibidez, industria.

ARTEMAN

Bestalde, Tokiko elkarteko EAEko bost kideek lortu dituzte emititzeko baimenak, eta orain, hainbat enpresarekin digitalizazioa eta formatu horretarako aplikazioak lantzen ari dira. Etorkizunean, telebista batera lan egiten jarraituko dute Tokiko elkarteko partaideek.

Aipatu behar da, era berean, EITBekin Tokikok duen hitzarmena; horren bidez, astero denetarik saioak saltzen dizkio EITBk Tokikori.

Horrez gain, Tokikok Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearekin hitzarmena dauka; Baint, Cmmtv (*Deia*), EKHE (*Le Journal* eta *Gara*), EKT (*Berria*), Elkar eta Euskaltelek osatzen dute talde hori. Bide horretatik ere, elkarlanak emango ditu bere fruituak.

TOKIKO ELKARTEKO KIDEAK

> GOIERRI TELEBISTA

2003ko maiatzean sortu zen, eta Goierriko 18 udalen oniritzia eta parte-hartzea du. Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerainen emititzen du: 40.000 biztanle.

> XALOA TELEBISTA

Nafarroako telebista horrek Baztanen, Bertiz Haranean eta Malerrekan emititzen du, 18.000 bat ikuslerendako. 1997an sortu zen, martxoan.

> OIZMENDI TELEBISTA

Orain bost urte sortu zen. Bizkaian emititzen du, Busturialdean eta Lea Artibain. 50.000 bat ikuslek jasotzen du seinalea.

> 28 KANALA

Tolosaldeko 48.000 biztanlerendako emititzen du: 28 herrirendako; tartean, Tolosarendako. 2006ko irailean sortu zen.

> ZARAUZKO TELEBISTA ETA KAITO TELEBISTA

Orain arte, Zarauzko eta Kaito telebistek (Azpeitia eta Azkoitia) lan luzea egin dute; aurrerantzean, Erlo Telebista osatuko dute. Zarauzko Telebista 1991ean sortu zen, Zarautz eta Getariarako, eta 24.500 ikusle ditu; Kaito Telebistak 24.300 ikusle ditu.

> TTIPI-TTAPA TELEBISTA

1998an hasi zen emititzen, Nafarroan, Bortzirietan (Bera, Lesaka...) eta Malerrekan (Doneztebe, Sunbilla...). Audiencia ikerketarik ez dute egin.



# IBARGUREN PENTSUAK

BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 BERGARA Tel.: 943 76 23 79

## Unea aukeratzea, denbora aurrezte da.

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. Zatoz Bastida Sukaldeak-era.

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. 8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510  
zarautz 943 894 999  
bergara 943 767 058

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak



Lupe Olabarria, Izaskun Gimeno eta Pili Fernandez > Aranzadi ikastolako irakasleak

# "Gurasoek laguntasun handia ematen ziguten lehen, inplikazio handia zegoen"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Inork baino hobeto ezagutzen dute Aranzadi ikastola Lupe Olabarria, Izaskun Gimeno eta Pili Fernandez andereñoek. Bizitza erdia han eman dute lanean. GOIENKARIArekin izan dira hirurak, hasierako urte haiek gogora ekartzeko eta ikastolaren eta, oro har, hezkuntzaren gaurko egoeraz hitz egiteko.

**Zenbat urte daramatzazue Aranzadi ikastolan lan egiten?**

Lupe Olabarria: Ikastola sortu zenetik gaude hemen hirurak. Ordura arte herrian zeuden euskarazko hiru eskolak bildu ziren eta 1971. urteko irailean Aranzadi ikastolaren ibilbidea hasi zen. Eraikina domingotarrek zuten eta beheko solairua eman ziguten lehenengo. Domingotarrek batxilergoa ematen zuten. Handik bi urtera joan egin ziren eta ikastola handitzen hasi ginen. Hasieran, hala ere, domingotar bat geratu zen zuzendari lanak egiten.

**Lehenago beste eskolaren batean-edo ibiliak zineten?**

Izaskun Gimeno: Bai. Koldo Elizalden ibili nintzen aurretik, Pol-Pol gainean eta batzoki ondoren zegoen hartan. Bi urte-edo iraungo zuen han, eta ondoren Aranzadira etorri ginen denok.

L.O.: Bai. Bergaran Akademia bezala ezagutzen genuen hartan, eskolaurrea eta lehenengo maila euskaraz ematen ziren eskolan.

Pili Fernandez: Ni ez.



Ezkerretik eskumara, Lupe Olabarria, Izaskun Gimeno eta Pili Fernandez, Aranzadi ikastolako lorategian.

ENEKO AZKARATE

LUPE OLABARRIA

**"Herriko euskarazko hiru eskolak bildu eta 1971. urteko irailean Aranzadi sortu zen"**

**Zer adin zenuten han hasi zinetenean?**

P.F.: 37. ikasturtea egiten ari gara aurten hemen. Beraz, nik 23 urte nituen ikastolan hasi nintzean. Lau urte kanpoan lanean

PILI FERNANDEZ

**"Hasierako mahaiak luzeak ziren, sagardotegietan egoten diren modukoak"**

ibili nintzen titulua atera arte, eta orduan sartu nintzen Aranzadin.

I.G.: Hemen 22 urterekin hasi nintzen eta aurreko ikastolan 19 urterekin.

L.O.: Ni 21 urterekin.

PILI FERNANDEZ

**"Oztopo batzuk zeuden legalak ez zirenak, baina haiek ez gaudituz gero, ez genuke postua izango"**

**Gogoratzen duzue zenbat umeekin hasi zineten?**

I.G.: Ezin ahaztu. 42 ume neuzkan. Izan ere, 5 urtekoak eta lehenengo mailakoak nahastuta nituen gela berean.

L.O.: Ni 38 umeekin hasi nintzen. 20 ume 5 urtekoak ziren eta gainontzeko 18 haurrek 4 urte zituzten.

P.F.: Ni bigarren maila ematen hasi nintzen. Gogoratzen naiz mahaiak luzeak zirela, sagardotegietan egoten diren modukoak, eta umeak bi aldeetan ezartzen zirela.

**Zelan gogoratzen dituzue hasierako urte haiek?**

L.O.: Ondo, lan ugari egiten bagenuen ere.

I.G.: Lan ugari bai, baina orain baino gehiago ailegatzeko ginen.

L.O.: Gurasoek laguntasun handia ematen ziguten. Inplikazio handia zegoen. Fitxak, adibidez, eskuz egin behar genituen, eta zapatu goizean ere eskolak ematen genituen.

I.G.: Bakoitzak dirua jarri behar zuen materiala erosteko.

**Gogorak izango zirenen...**

P.F.: Bai. Gauza guztiak ziren orduan nahiko gogorak. Baina, gogoarekin, aurrera ateratzen ginen eta pozik egiten genuen lan. Herriak asko laguntzen zigun. Oztopo batzuk zeuden orduan legalak ez zirenak, baina haiek ez gaudituz gero, gaur egun ez genuke lanposturik izango hemen.

I.G.: Gainera, gure kabuz egiten genuen lan. Debagoieneko ikastoletako irakasle guztiak Ber-

(16. orrialdean jarraitzen du)

**KOLTZOI DENDĀ  
ALTZARI DENDĀ**

**GURIDI**

Artekale 6 eta 8  
Telefona / Faxe: 943 76 31 02

20570 BERGARA

**ZABALA**

o p t i k a

- Graduazioa
- Ukipen-lenteak
- Begietako tentsioa
- Audiometria
- Adin guztietarako armazoiak
- Eguzkitako kirol betaurrekoak

**Argi daukagu!**

Barrenkale 25 BERGARA  
Tel.: 943 76 16 97

Inigo Zabala optiko-optometrista PRS:170 / 04

**bz sistemas**

bulego altzariak

Ibargarai hiribidea 35 • 20570 Bergara (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 79 17 65  
Faxe: 943 79 73 24  
bzsistemas@bzsistemas.com  
www.bzsistemas.com

**KAIKO**

**T A B E R N A**

*Mota guztietako bokadiloak ditugu!*

Zurradero 4, BERGARA  
Tel.: 669 53 97 03





**pertsonen enpresa**  
**pertsonentzako enpresa**



ULMA TALDEA • Garagaltza Auzoa 51 • 22 PK • 20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel: 943 25 03 00 • Faxe: 943 78 09 17 • [www.ulma.es](http://www.ulma.es) • [grupoulma@ulma.es](mailto:grupoulma@ulma.es)





Aspaldiko oroitzenak ekarri dituzte gogora andereñoek.

E.A.

PILI FERNANDEZ

### "Behin merkatura joan ginen landareak erostera eta kobratzaileak handik bidali zigun"

(14. orrialdetik dator)

garan batzen ginen eta programazioa horrela egiten genuen. Orain, nondik nora joan behar dugun zehaztuta dago.

P.F.: Gogoratzen naiz behin, zapatu goiz batean, landareak ikasten genbiltzala. Pezeta batzuk genituen eta merkatura joan ginen, landare batzuk erostera. Hara iristean, Udaleko kobratzaileak etorri zen eta handik bidali gintuen, traba egiten genuelako. Ezer erosi barik triste bueltatu ginen eskolara.

### Asko aldatu da ordutik hona Aranzadi ikastola eta hezkuntza, oro har?

I.G.: Bai, zeharo. Orain beste gauza bat da. Irakasle gehiago daude. Hamabi bat irakasle hasi ginen ikastolan eta guztiek eza gutzen genuen elkar orduan. Orain 75 bat izango gara.

P.F.: Nork bere espezialitatea du eta proiektu pedagogikoa zehaztuta daude gaur egun. Horrez gain, ume gutxiago daude gela bakoitzean.

L.O.: Oraingo materiala ere askoz hobea da. Gauzak asko aldatu dira.

P.F.: Denborarekin dena aldatu da. Lehen, irakaslea baloratua goa zegoen. Gaur egun, hori galdu egin da, irakasleak ez du lehen zeukan pisu hori. Edukazioa lehen etxetik etortzen zen.

### Beraz, lehengo eta gaurko gurasoek ez dute zerikusirik...

IZASKUN GIMENO

### "Gaur egungo umeak ez daude ohituta ezetza entzuten eta hortik dator dena"

L.O.: Ez. Nire ustez, gainera, guraso biek kanpoan lan egiten duten batzuek ez dute errudun-komplexua gainditu eta umei dena onartzen diete. Guraso askok uste dute kanpoan lan egiteagatik umea abandonatuta sentitzen dela, horrela ez bada ere.

P.F.: Nik bi gauza markatuko nituzke: arau falta eta errespetu falta, ez bakarrik gurekiko, haien artekoa ere. Hori lantzen ari gara.

I.G.: Gaur egungo umeak ez daude ohituta ezetza entzuten, eta hortik dator dena.

### Gaia aldatuko dugu. Kilometroak eta gainerako ikastolen aldeko gaiak oraindik beharrezkoak direla uste duzue?

P.F.: Bai. Laguntza ekonomiko behar da.

L.O.: Jendea girotzeko ere balio dute. Giro euskalduna sortzen da jaialdi horietan. Lehendik elkar ezagutzen dugun jende asko elkartzen dute.

P.F.: Ni poztu egiten naiz ikusita nire eskuetatik pasa diren ikasleak horretan jo eta su lan egiten. Nik beti esan dut erretiratu nahi dudala ikastola ondo lagata. Eta oztopo guztiek ematen duten indarrarekin eta Kilometroek emango diguten bultzakadarekin, ikastola ondo lagata erretiratuko naizela uste dut. Baikorrak izan behar dugu mundu honetan.

### Erretiroaz hitz egiten hasi zarete. Zenbat geratzen zaizue?

P.F.: Nik espero dut aurten erretiratzea. Beharrezkoak diren

PILI FERNANDEZ

### "Ikastola ondo lagata jubilatuko naizela uste dut. Baikorrak izan behar gara"

urteak beteta izango ditut hemendik gutxira.

I.G.: Nik espero dut hurrengo ikasturtea amaitzean erretiroa hartzea.

L.O.: Nik, ahal baldin bada, hemendik hiru urtera.

### Espainiako Gizarte Segurantzak klandestinitatean irakasle aritutakoei urte haiek kotizatutaz emango dizkie. Eragiten dizue neurri horrek?

P.F.: Nik ez daukat beharrik, baina jende askok urte haien beharra du.

L.O.: Nik, guztira, zortzi urte dauzkat kotizatu gabe. Horiek kontuan izanez gero, urtebete inguru geratuko litzaidake.

### Amaitu aurretik, zertan jardungo duzue gaur Kilometroetan? Non aurkituko zaituztegu?

P.F.: Txartelak saltzeko arduratu daukat.

I.G.: Ni ikuskizunetan nago, eta tonbolan izango naiz.

L.O.: Ni giza baliabideetan nago sartuta. Iluntze aldean gogor egin beharko dut lan, bukaerako trasteak jasotzen ibiliko naiz-eta ziurrenik.

I.G.: Hori denok egin beharko dugu. Bakoitzari egokitu zaigunaz gain, denetarik egin beharko dugu.


### Zer ordutan jaikiko zarete?

L.O.: 06:00etarako lanean izan behar dugu. Beraz, egin kontuak. Asteburuan ere lanean ibili gara.




Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA  
Tel.: + 34 943 78 60 09  
Faxa: + 34 943 78 70 34  
<http://www.matz-erreaka.com>

San Juan auzoa 93  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 99 00  
Faxa: 943 76 99 01  
[www.erreaka.com](http://www.erreaka.com)



# MATZ-ERREKA

- Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
- Plastik eraldakuntza injekzio bidez
- Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoak
- Oinezkoentzako ate automatikoak



## IZPI, S.L.

Tel.: 943 76 58 87  
Faxa: 943 76 58 24

[www.izpi.es](http://www.izpi.es)  
E-mail: [izpi@izpi.es](mailto:izpi@izpi.es)

- Galdaragintza
- Eraikuntza Metalikoak
- Enpresen Mantenimendua

ariznoa  
taberna

Argi daukagu!

Irala kalea 1 • Tel.: 943 76 52 30  
20570 BERGARA - Gipuzkoa





## GEYSER-GASTECH

“Ur berogailuak” ekoizteko  
FAGOR eta VAILLANT-en  
artean egindako  
Joint Venture-a



Geyser GASTECH  
Kudeaketaren Kalitateari Euskal Saria

  
ARGI DAUKAGU



(Bergara, San Juan Poligonoa)





EGITARAUA &gt; HAURRENDAKO ESKAINTZA

# Txikienendako hamaika aukera nonahi

Bigarren gunean izan ezik, gainontzeko gune guztietan izango dira umeen jolasak egun osoan; besteak beste, tailerrak, jolasak eta puzgarriak

MIREN ARREGI &gt; BERGARA

Iritsi da egun handia, eta herriko haurrak eta herrikoak ez direnak ere Kilometroak 07 jaiak eurentzat prestatu dituen jolasen zain daude. Sei gune ditu Kilometroetako egitarauak eta horietatik lau gunetan egongo dira umeendako jolasak.

Lehenengo gunean, Ikastola deritzon gunean hain zuzen ere, 09:30ean hasita haur jolasak eta tailerrak egongo dira. Matxiategi A gunean, ordu berean hasita, haur jolasak, puzgarriak eta tai-



UMEENDAKO JOLASAK Umeak gaztelu puzgarrira igotzeko prest.

GOIENKARIA

lerrak egongo dira, ume guztientzat gozagarri. Artabila gunean Jaima gunea ipiniko dute, eta chill out teteria eta Txiki Jaima

izango dira erakargarrietako batzuk. Txiki Jaima horretan *Munduari oparia* deritzon ekimena egongo dute eta txikienek har-

tuko dute parte. Labegaraietan ipiniko dituzte puzgarriak, tailerrak eta baita globo aeroestatikoak ere; hain zuzen ere, umeek

globoan gora eta behera ibiltzeko aukera izango dute. Azkenik, Espoloian ere, goizean goizetik hasita ipiniko dituzte umeendako jolasak eta tailerrak. Baita mahai-futbola ere, umeek bertan partiduak joka ditzaten. Espoloia gunean gainera, eguerdiko hamabietan hasita eta ordu eta erdiko iraupenarekin, Euskara-okea egongo dute. Txatxilipurdi elkarteak antolatuko du Euskara-okea eta haurrek abesteko duten abilezia praktikan ipintzeko aukera izango dute. Euskara-okea Espoloi erdigunean dagoen kioskoan egongo da, eta bi aurkezle izango dira taula gainean. Euren giro aparta sortuko dute umeak animatuz, dantzatzu eta baita umei abesten lagunduz. Euskal kantuak izango dira guztiak, beste batzuen artean *Lau teiatu*, *Txoria txori* eta, nola ez, Kilometroak 2007ko abestia ere bai. Umeek telebista handi bat izango dute abestien letrak jarraitu ahal izateko.

## PUZGARRIAK

## Era guztietakoak

Matxiategi A gunean 09:30ean hasita eta egun osoan egongo dira haurrendako jolasak; era eta forma guztietako puzgarriak ipiniko dituzte, etxeko txikientzat gozagarri. Gainera, moto zirkuitua eta tailerrak ere egongo dira Esait-en eskutik, Euskal Selektzioaren aldeko ekimenaren eskutik. Esan bezala, txikienek motor zirkuituan gidatzeko duten abilezia erakutsi ahal izango dute.

## JAIMA GUNEA

## Munduari oparia

Jaima gunea Artabila gunean ipiniko dute, hau da, laugarren gunean. Han ipiniko dute chill out teteria, hurbiltzen diren guztiei era guztietako teak eskaintzeko. Gainera, ludoetnia gunea eta Txiki Jaima bat ere ipiniko dituzte. Txiki Jaima horretan, umeek euren elkatasuna garatzeko ekintzak egongo dira. Hala, *Munduari oparia* deituriko ekimena egongo dute.

## GLOBO AEROESTATIKOA

## Labegaraietan

Labegaraietan gunean, ohiko haurren jolasak diren gaztelu eta koltxoneta puzgarriez gain, tailerrak ere egongo dira. Baina dudarik gabe gune honetako nobedadea edo berritasuna globo aeroestatikoak da. Labegaraietara hurbiltzen diren haurrek disfrutatu ahal izango dute globoan sartu eta bat-batean zeruan sentitzearen zirra. Animatu Labegaraietatik buelta bat ematera, merezi du-eta.

## EUSKARAOKEA

## Kantarientzako tokia

Dantzatzea eta batez ere abestea gutzuko duten umeek ere izango dute non disfrutatu. Izan ere, Espoloian, Txatxilipurdi elkarteak antolatutako Euskara-okea egongo da 12:00etatik 13:30ak ingurura arte. Euskara-okeak, hitzak berak dioten moduan, euskal kantuak eroango ditu Bergarara, eta beste askoren artean Kilometroak 2007 jaiaren abestia kantatuko dute. Gune horretan mahai-futbola ere egongo da.

## HAURREN JOLASAK

## Motor zirkuitua

Haurren jolasen barruan sartzen diren gaztelu eta koltxoneta puzgarriez gain, motor zirkuitua ere egongo da Ikastola, Matxiategi A, Artabila eta Espoloia gunetan. Denok dakizuen moduan, zirkuitu itxi bat egongo da, non txikienek, kasko eta guzti, gidatzeko abileziak erakutsi ahal izango dituzten. Beste Kilometro batzuetako jolasak arrakastatsuen izan ohi da hau.

## IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE Tel.: 943 79 11 71

## ZANGITU margoak

Irala z/g. BERGARA Tel.: 943 76 19 54



- Koloreak sortzeko makina
- Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu!



**iraundi**  
SPECIAL BEARINGS

IRAUNDI S.A.  
Elgetako bidea z/g  
20570 BERGARA

Tel.: (34) 943 76 27 44  
Faxa: (34) 943 76 50 84  
iraundi@iraundi.es  
www.iraundi.es








**PROIEKTUA - DEKORAZIOA**



*Ipar*

*project, s.l.*

**SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA**



**Merkatuko kehen markak**

**Gremioen koordinazioa**

**Mota askotako estiloak**

**Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegaraieta industrialdea  
BERGARA**

**Tel. 943 76 98 30 / Fax: 943 76 52 44  
[www.iparproject.com](http://www.iparproject.com)**



# KILOMETROAK

gizarte ekintza

kultura

Pausoz pauso,  
kilometro zehar,  
euskararen alde.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 kutxa



Hilario Sein > Segurtasun eta prebentzio arduraduna

# "Gune bakoitzean sendagileak, erizainak eta anbulantzia ditugu"

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Bergaran jarri dituzten azpiegitura guztiek segurtasun neurriak bete dituzte. Hori guztia Hilario Seinek gidatutako lantaldeak koordinatu du. Sendagileak, erizainak eta beste 200 lagun inguruko lantaldea osatzen dute.

**Eskarmentu handia daukazu prebentzio eta segurtasun alorrean...**

1990a ezkeror alor horretan lanean dihardut Kilometroetan. Orain dela bi urte arte boluntario lan egin dut, baina ordutik hona ordu batzuetarako liberatu nautse segurtasun planifikazioak egiteko. Horrez gain, Biescasen izan nintzen eta Gibraltarren ere hainbat alditan izan naiz etorkinei harrera planak egiten laguntzen.

**Zein da zure zeregin nagusia?**

Egunari begira, urtean zehar planifikatutako segurtasun plana betetzea, segurtasun neurriak mantentzea; eta ezohiko zerbaite gertatuz gero, ditugun baliabide-

ak erabiltzen jakin eta arazoei konponbidea ematea. Gaur segurtasun koordinazio zentroan egongo naiz, Aranzadi ikastolan. Handik uneoro jakingo dugu gune eta leku bakoitzean zer egoera dagoen; eta beharrezkoa bada, erabakiak hartuko ditugu.

**Segurtasun alorrak batzorde guztiei eta zirkuituari berari ere eragiten die, ezta?**

Bai. Segurtasun batzordea gaiaren gaineko adituek osatzen dute: suhiltzaileak, prebentzio teknikariak... Baina segurtasun planak batzorde guztiei eragiten die. Esaterako, segurtasun planak asko baldintzatu du zirkuitua eta ibilbidea zein den.

**Zer baldintza nagusi bete behar ditu zirkuitu batek?**

Zirkuitua diseinatzerakoan kontuan hartu behar da zirkuituak zer errepide ukituko dituen; hau da, larrialdietarako errepideak eskura izatea. Hori ezinbestekoa da. Horrez gain, oso garran-

tzitsua da, baita ere, herriak, kasu honetan Bergarak, ohiko dituen zerbitzuak ziurtatu ahal izatea. Jai bat da, baina badaude eguneroko premiak.

**Osasun alorraren gainekoez mintzo zara?**

Ez horiek bakarrik. Guk bermatuko dugu edozein herritarrek, zirkuituan izan edo ez, berehalako osasun arreta izatea, behar duena. Horrez gain, ziurtatu behar dugu, adibidez, bergarrek egunero moduan domekan ogia erosi ahal izatea.

**Zer eskatzen diezu gaur Bergara etorri direnei?**

Petoa dutenek emandako aholkuei kasu egitea, megafoniari arreta egitea eta zirkuitua errespetatzea, batez ere. Jarritako hesiak zerbaitetarako dira eta horien gainetik salto egiteak arazoak sorrarazten dizkigu. Bestela, Kilometroetan normalean jendeak jarrera nahiko egokia izaten du orokorrean.



Hilario Sein, Kilometroetako prebentzioko arduraduna.

GOIENKARIA

**"Bergarrek bizimodu normala egiteko aukera izan behar dute, eta hori ere bermatuko dugu"**

**"Zirkuitua diseinatzeko orduan oso kontuan hartu ditugu larrialdi planak"**

**"Gune bakoitzean sendagileak, erizainak eta anbulantzia bat edo bi izango ditugu"**

**"Guneak kokatzeko eta txosnak jartzeko orduan ere kontuan hartu dugu guztion segurtasuna"**



**Goitu**  
eraikuntzak, S.L.

- Etxebizitza eskaintzak
- Berriztatzeak
- Garajeak

Tel.: 943 76 11 23  
Faxa: 943 76 30 41  
Masterreka 14-16  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
goitu@grupogoitu.com  
www.grupogoitu.com

- Pabilioiak
- Hotelak
- Urbanizazioak



GURASOAK &gt; ARANZADI IKASTOLAKO GURASOAK OMENDUKO DITUZTE GAUR

# Aranzadi ikastolako guraso guztiendako omenaldi beroa gaurko Kilometroetan

Aranzadi ikastolako lehenengo eta oraingo presidentek eta haien emazteek jasoko dute saria

Udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da ekitaldia, eguerdian

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Aranzadi ikastolako gurasoak omenduko ditu gaur Kilometroak 07k. Gurasoek erabateko garrantzia izan dute Aranzadi ikastolaren eta, oro har, ikastola guztien sorreran eta iraupenean. Gaur egun ere, ikastolak zerbait badira, Kilometroak egiten bada, neurri handi batean gurasoen lanari esker da.

Guraso guztiak. Aita-amak. Direnak eta izan direnak. Eta izango direnak. Guztiak omenduko dituzte gaur. Baina denak ezin kabitu udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta batzuek jasoko dute saria Aranzadiko guraso guztien izenean. Bi guraso ordezkatuko dituzte guraso guztiak: bate-tik, Aranzadi ikastolak izan zuen lehen zuzendaritza batzordeko presidentek eta haren emazteak, hau da, Felix Altunak eta Itziar Gabilondok. Bestetik, gaur



GURASOAK Gurasoak umeen zain Aranzadi ikastolako jolastokian.

XABIER URTZELAI

egungo Artekaitza Kontseiluko lehendakari Angel Mari Egurenak eta Mila Alonso emazteak. Egurdiko hamabietan izango da ekitaldi hori.

#### HASIERAKO URTEAK

Felix Altunak eta Itziar Gabilondok argi eduki zuten hasieratik: euren umeak ikastolan hezi eta hazi nahi zituzten. Hala, Komenio kalean zegoen Luis Elizalde

ikastolan lehenbizi eta, sortu zenean, 1971n, Aranzadi ikastolan sartu zituzten umeak. Sorrerako urte haietan jo eta ke aritzea egokitu zitzaientz, batez ere Felixi. "Ikastola zela eta Umore Ona elkarte zela, ia ez nuen ikusi ere egiten", diosku Itziar Gabilondok. "Bai Koldo Eleizalde ikastolaren sorreran, lehenengo, eta baita Aranzadi ikastolarenean, gero, On Serafin Esnaola apaizak

zerikusi handia eduki zuen. Oso garrantzitsua izan zen haren akuilu lana eta eskaini zigun laguntza". Eta, ikastolen sorreran, "garrantzitsuak izan ziren 1963tik aurrera egin ziren Aberri Egunak, Gernika, Iruñea, Gasteiz eta Bergarakoak; horiek izan ziren ernamuina", dio Felixek.

Gogoan dauka Aranzadi ikastola sortzeko izan zituzten hartu-emanak. Domingotarrek era-

biltzen zuten orduan Errege Seminarioa. Han batxilergoko eskolak ematen zituzten. Eta haiek utzi zizkieten ikastolari gela batzuk, haur eskolekin eta oinarrizko hezkuntzarekin has-teko. Madrilera joan eta han lortu zuten baimena horretarako. "Sei bat gelarekin-edo hasiko ginen", dio Felix Altunak.

Orain dela ia 40 urte ikastolen sorrerekin ekindako lanak eta sartutako orduak eta orduak merezi izan dutela argi dauka Felixek, eta baita gaur egun oraindik ere ikastolak beharrezkoak direla, euskarari eta euskalzale-tasunari eusteko. "Nafarroan Miguel Sanz dagoen moduan, beti euskararen aurka, gu hemen, modu positiboan euskararen alde, hortxe jarraitu behar dugu, gogor", dio Altunak.

#### GAUR EGUNGO BURUHAUSTEAK

Ikastolaren sorreran makina bat buruhauste izandakoa da Felix Altuna, baina gaur egun ere burukomin galantak ematen dizkio Angel Mari Eguren oraingo presidenteari. Burukominak bai, baina satisfazioak ere bai. Seminarioaren lagapenaren kontua dela, azkenaldian instalazioekin sortu den zalaparta dela... Kilometroekin ia gozatzeko aukerarik ez du izan Angel Mari Eguren urte osoan. Baina gaurko egunaz disfrutatuko duela esan digu. Kilometroen ostein lagako du presidente kargua.



ARCELOR BERGARA, S.A.



ArcelorMittal

Guk ere, argi daukagu!



**SENDABELARRAK  
ETA  
DIETETIKA**

**Argi daukagu!**

#### ELIKAGAI EKOLOGIKOAK

- Fruta: Sagar, kiwi, laranja, platanoa...
- Ogia: Haziduna, zekalezkua, pasaduna...
- Barazkiak.
- Arraultzak.
- Haurrentzat papilak...

- **Naturista Mediku kontsulta**
- **Pisu kontrola**





Egizu euskaraz!

nahi baduzu...

**egingo duzu**

**26 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.  
HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekak...**

**07- 08** ikastaroa

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani  
Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Oñati | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

***matrikula  
zabalik***

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK  
  
[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

HABEren dirulaguntzaz.



**1. gunea - IKASTOLA**

**2. gunea - USONDO**

**3. gunea - MATXIATEGI**

**4. gunea - ARTABILA**


**5. gunea - LABEGARAIETA**

**6. gunea - ESPOLOIA**

Dendak    Larrialdi zerbitzuak    Ezinduentzako komunak    Komunak

Izozkiak    Jakiak    Edariak    Diru trukea


Kafea    Edalontzien tiketa trukatzeko guneak    Jantokiak    Sarrerak



**UGARTE**

[www.suministrosugarte.com](http://www.suministrosugarte.com)





**3. gunea - MATXIATEGI A**

- |   |                           |
|---|---------------------------|
| 12:30   | Kiki, Koko eta Moko.      |
| 13:30   | Erraldoi eta buruhandiak. |
| Egunean zehar: haur jolasak, puzgarriak eta tailerrak; zirko tailerra: malabareak, hankapaluak... |                           |

**3. gunea - MATXIATEGI B**

- |       |                        |
|-------|------------------------|
| 11:00 | Trapatoni Circus Band. |
| 12:30 | Sagarroi.              |
| 14:00 | Nour.                  |
| 15:30 | Esne Beltza.           |
| 17:00 | Trikizio.              |

**1. gunea - IKASTOLA**

- |       |   |
|-------|---|
| 09:30 | Zirkuituaren irekiera.  |
| 11:00 | Abarka dantza taldea.   |
| 12:00 | Erraldoi eta buruhandiak.                                     |
| 13:00 | Betizuak.   |
| 14:30 | Txan magoa.   |
| 16:00 | Emon.   |
| 17:30 | Belceblues (KMK 07 kantua).<br>Egunean zehar: haur jolasak... |

**2. gunea - USONDO**

- |       |   |
|-------|---|
| 10:30 | Musiraka dantza taldea.   |
| 11:30 | Moises Azpiazu dantza taldea.                                   |
| 12:00 | Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatza (Santa Marina elizan). |
| 12:30 | Oinutsik.   |
| 14:00 | Anje Duhalde.   |
| 15:30 | Pantxoa eta Peio.   |
| 17:00 | Tapia eta Leturia & Jokin.                                      |

**6. gunea - ESPOLOIA**

- |   |                                      |
|---|--------------------------------------|
| 12:00   | Euskaraokea.                         |
| 12:30   | Bergarako trikitilariak.             |
| 14:00   | Aitzol Mujika.                       |
| 15:30   | Anari.                               |
| 16:30   | Futbolin erronka (BTLS-ren eskutik). |
| Egunean zehar: haur jolasak eta tailerrak, futbolinak, artisau azoka... |                                      |



ZURE OPTIKA  
**ITZIAR UGARTE**

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Argi daukagu!

Arrasate pasealekua 35 ARRASATE 943 08 26 87  
Escola Politeknikoaren ondoan



ONDAREA &gt; ARTEA ETA NATURA

# Bergarak asko du eskaintzeko: etorri, ikusi eta gozatu

Bergarak dituen eraikin esanguratsuenetarikoak ikusi ahalko dira ibilbidean barrena

Agarreko garaiaren ondotik -Gipuzkoan dagoen bakarra- igaroko da ibilbidea

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Laua eta urbanoa. Horiek dira aurtengo Kilometroak jaiaren ibilbidearen ezaugarriak. Hirigunetik igaroko da zati handi baten eta Bergarak dituen altxor ugari zeharkatuko ditu, hala nola eraikin dotoreak eta herriko parke ederrak. Dena den, hirigunea ez ezik, herriko auzo batzuetan eta naturaguneetan barrena ere badoa ibilbidea, eta hor izango da maldatsuagoa, baina neurrian, paseo eroso egiteko modukoa.

ONDARE GARRANTZITSUA

Bergara zerbaitegatik nabarmentzen bada, da ondare artistiko-historiko oso garrantzitsua duelako. Arkitektura zibil zein erlijiosoaren adierazgarri benetan balekoak ditu: udaletxea, Olaso eta Moiuia dorreak, Errekalde, Errotalde eta Untzueta jauregiak, Eginu Mallea, Aroz-

tegi, Jauregi, Arrese, Laureaga eta Irizar etxeak (Esparterok eta Marotok hor sinatu zuten II. Karlistaldiaren amaiera eta euskal foruen galera) eta San Pedro eta Santa Marina parrokiak, beste batzuen artean. Horren ildora, esandako horietako batzuk zeharkatzen ditu Kilometroetako ibilbideak.

Horrekin guztiarekin batera, parke ederrak ere baditu Bergarak, eta horietako bi zeharkatuko ditu ibilbideak: Arrizuri eta Usondo parke zoragarriak, hain zuzen ere.

(28. orrialdean jarraitzen du)

## Elhuyar anaien laborategia, Seminarioan

Aranzadi ikastola hartzen duen eraikina, Errege Seminarioa, XVIII. mendean, hezkuntza eta ikerketa zientifikoaren esparruan Europako erakunde garrantzitsuenetakoa izan zen. Aipatzekoa da Elhuyar anaiek euren ikerketetako asko Errege Seminarioan egin zituztela, han zuten laborategian, hain zuzen. Horrekin guztiarekin, wolframioa deritzon metala Bergaran aurkitu zuten.

Errege Seminarioa multzo historiko-artistiko izendapena duen San Martin plazan dago, udaletxearen parean eta alboetan, Jauregi eta Izagirre Moiuia etxe dotoreak ditu.



ERREGE SEMINARIOA San Martin plazako eraikin nagusietakoa da eta hantxe dago Aranzadi ikastola.

GOIENKARIA.



AGARREKO GARAIA Gipuzkoan geratzen den bertoko aletegi bakarra da. GOIENKARIA.



**URBIETA**  
zeramikak eta bainuak

PORCELANOSaren banatzaile ofiziala

Ibargarai 11-13  
20570 BERGARA  
Tel./Fax. 943 76 14 50



• PARAFARMAZIA • BELAR-DENDA • DIETETIKA

San Pedro 4 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 41  
e-posta: eki-lur@hotmail.com • www.eki-lur.com



BASERRIKO TRESNEN SALMENTA ETA KONPONKETA

Labegaraieta Industrialdea - Telleria kalea 17  
BERGARA (Gipuzkoa) Tel./Faxa: 943 76 12 11





**AIRE, AIRE !!!**  
EUSKARARI



Gipuzkoako Foru Aldundia



(26. orrialdetik dator)

#### IBILBIDEAREN HASIERAN

Ibilbidea hasten da Aranzadi ikastolak San Martin plazan daukan eraikinean, Errege Seminarioaren patioan, hain justu ere. Hala, aipatzekoa da San Martin plazaren –multzo historiko-artistiko izendatuta dago– inguruan dauden eraikinak. Eraikin multzo hori osatzen dute: Errege Seminarioak eta aurrez aurre duen udaletxeak eta alboetan dauden Jauregi –fatxadan duen erliebea mudejarren erakusgarri da– eta Izagirre Moiuia etxeek eta Olaso dorreak –Telesforo Monzon jaio eta bizi izan zen dorretxea–.

#### IBILBIDEAN BARRENA

Ibilbidean aurrera eginez gero, Santa Marina parrokiarekin eta haren alboan dagoen Usondo parkearekin egingo dugu topo, Deba errekaaren ondoan biak.

Santa Marina parrokia euskal gotikoaren adibide paradigmaticotzat jotzen da eta bi epeetan eraiki bazen ere –1542-1607 eta 1648-1672–, estilo aldetik irizpide bateratua aurkezten du. Erretaula nagusia zoragarria da: jauregi barroko aberatsa ekartzen du gogora. Usondo parkeari dagokionez, atsedenaldira gozoa egiteko moduko lekua da.

Ibilbidean aurrera eginda, kanposantu aldera hartuko du bideak eta handik, buelta eginez, bidegorria hartu –lehengo

trenbide zaharra– eta Gabiria dorrearen albotik igaroko da ibilbidea.

Handik aurrera, naturagunean sartuko da ibilbidea, Agirre auzoan, hain justu ere. Han dago Agarreko garaia (horreoa), Gipuzkoan dagoen bertoko eta era horretako aletegi bakarra. Zurezkoa da.

#### ERDI AROKO JAUNTZOAK

Agirre auzoan behera eginda, Ozaeta zubia gurutzatu eta Ozaeta dorrearen aurretik igaroko da ibilbidea. Gabiria dorrearekin batera, herriaren historian zeresan handia izan duten familien jaiotetxe izan dira: Berant Erdi Aroan, arerio izan ziren eta borroka ugari egin zuten udal jabetza-rengatik.

Ozaeta jauregia XVI. mendean eraiki zuten, inguruan zegoen beste dorretxe bat ordezkatzeko. Gaur gun, Lasa jatetxea da. Gabiria dorrea, berriz, XV. mende bukaeran jasotako eraikina da eta XVI. eta XVII. mendeetan eraberritu egin zuten. Gaur egun ere obretan dago dorretxea. Tavex lantegiak bulegoak egokituko ditu han. Horrekin batera, Bergarako ehungintzaren gaineko erakusketa txikia ere jarriko dute.

Ozaeta jauregitik aurrera eginda, Zubiaurre eta Martoko kaleak zeharkatu eta San Antonio auzoa iritsiko da ibilbidea. Handik pixka bat aurrera jarraitu eta platanondo handi eta ede-



SANTA MARINA PARROKIA Usondo parkearen alboan dago parrokia. GOIENKARIA

rrez jantzitako Espoioia plaza-txoa igaro eta gero, parke eta jauregi eder batera iritsiko da ibilbidea: Untzueta jauregira eta hura inguratzen duen Arrizuri parke-ara, hain justu ere.

Handik aurrera eginda, ibilbidearen abiapuntura iritsiko gara, Bergarako alde berritik; Errege Seminarioko patiora.

#### NATURA INGURUNEA

Kilometroetako ibilbideak Bergarako herriguneak eskaintzen dituen eraikin ederrak ikusteko aukera emango dio bisitariari, batik bat. Baina Bergara hori baino gehiago da; natura ingurune ederrez inguratuta dago herria. Auzo ugari ditu: Angiozar, Basalگو, Ubera, Elosu, San Martzial...



PARKEA Arrizuriaga. GOIENKARIA.



JAUREGIA Ozaeta. GOIENKARIA.

Horiek guztiek dute bisitariari asko eskaintzeko. Paraje zoragarriak izateaz gain, aisiagune paregabea eskaintzen dute.

Gaur, urriak 7, herriguneko txokoak ezagutuko ditu bisitariak. Hori horrela, hurrengo bisitaldi baterako utz ditzake esandako auzune eta naturaguneak.



**ARGI DAUKAGU**

*Gogor  
estutzen dugu!*

**INDUSTRIAS**



**ANGUITU**



**Torlojugintza**  
Especialitatea: era guztietako azkoinak

Tel.: 943 76 18 05 / Faxe: 943 76 27 43 / San Juan auzoa 40 BERGARA / [industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es](mailto:industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es)





Asko ibili arren,  
zure estiloak berdin jarraitzen du.

# Jean Louis David®

## AUSART ZAITEZ!

### TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

### DIFFUSION

#### QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

### DIFFUSION

Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

### DIFFUSION

Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.  
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

### DIFFUSION

Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

### BULEGO ZENTRALA TRAINING CENTER

Gasteiz Etorbidea 84  
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek **LOREAL**  
produktuak erabiltzen ditu

 **IRURAK MARGOAK**  
DISEÑOAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta-kutxa • 20570 BERGARA  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

*Argi daukagu!*



INGURUMENA &gt; EDALONTZI BERRERABILGARRIAK

# Ingurumenaren aldeko apustua egin nahi da edalontzi berrerabilgarriekin

Naturarekiko konpromisoagatik ahalik eta zabor gutxien sortzea da asmoa

Edalontziak eskura daitezke lehenengo, hirugarren eta bosgarren guneeetan

ARRITXU BARRUSO &gt; BERGARA

Euskararen aldeko festa handia da gaurkoa, baina festa eta ingurumenarekiko errespetua eskutik joan daitezkeela argi dago. Hori xe da Aranzadi ikastolak aurten ere lortu nahi duena. Iazko Kilo metroetako esperientzia positiboa ikusita, aurten ere edalontziak berrerabilgarriak izango dira. Naturarekiko konpromisoagatik, ahalik eta zabor gutxien sortzea da asmoa. Iraunkortasunaren aldeko apustuarekin bat egin nahi dutenek euro baten truke edalontzi txartela erosi ahalko



EDALONTZI BERRERABILGARRIAK Argazkian ikus ditzakeuzuen moduko edalontziendako txartela erosi ahalko da euro baten truke

GOIENKARIA

dute horretarako jarritako postuetan. Lehenengo, hirugarren eta bosgarren guneeetan aurkituko dituzte postuok. Txosnan, edaria-


renarekin batera, txartel hori erakutsi beharko dute eta jasotako edalontzian zerbitzatuko zaie edaria. Behin edan ondoren, txosnan

bertan itzul daiteke edalontzia, eta trukean edalontzi txartela jaso. Bestela, ibilbide guztian erabil daiteke edalontzia. Egunaren

bukaeran edalontziak berreskuratzea da asmoa. Edalontzia hartutako lekuan utzita, erabiltzaileek euroa berreskuratuko dute.

NINIKA

L O R A D E N D A




## Argi daukagu!

Ramon Maria Lili 8 **BERGARA**  
Tel./Faxa: 943 76 10 01

# MAPFRE

## ...ETA LASAI BIZI.







**Argi daukagu**

**Garbi**

Ibarluzea poligonoa, B-12. Pab.  
20120 HERNANI  
Tel.: 943 33 18 37  
[www.garbicontrolplagas.es](http://www.garbicontrolplagas.es)

**Egurraren tratamendua (pipiak, termitak...)  
Berritasuna: hezetasunaren tratamenduak**

motozerrak | motosegak | heskaia mozteko makinak | haizatzaileak | xurgagailuak | atomizagailuak | trontzatzeko makina

**Liderraren indarra zure esku**

 **comercial BRUNET**

Telleria kalea 2, Labegaraieta industrialdea - BERGARA  
Tel.: 943 76 31 52 - Faxe: 943 76 70 12 - e-mail: [brunett@telefonica.net](mailto:brunett@telefonica.net)  
[www.comercialbrunet.com](http://www.comercialbrunet.com)



**ECHO**



Josu Erguin > Kilometroen sortzailea

# "Pozik nago Kilometroak herriaren ondare delako"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Kilometroen sortzailea da Josu Erguin. AEBetan jasotako ideia bat Euskal Herrira ekarri zuen ikastolen alde. Beasainen izan zen 1977an lehen Kilometroak.

Noiz ezagutu zenuen gerora Kilometroak jaiaren oinarri izango zen jaialdia?

1969an, Kalifornian ikusi nuen gizarte gai batera zuzendutako ibilaldi bat. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, parte-hartzaileek esfortzu bat egiteagatik dirua ordaintzen zutelako. Zenbat eta esfortzu handiagoa, orduan eta diru gehiago; hori zen bitxia.

Nolatan ekarri zenuen ideia Euskal Herrira?

Alaba ikastolan sartu genuenean, guraso elkarteetan sartu nintzen. Garai hartan Goierri inguruan lizeoa berritzeko pausoa eman behar zen eta diru piloa behar zen. Orduan, entzundako ideia hura mahai gainean ipini nuen. Juntako kideek ikuspegi zabalarekin onartu zuten ideia. Gipuzkoako ikastolen elkarteak ere ideia sinistu zuten. Planteamendu nagusiak hauek ziren:

urtean behin egitea; behar nagusi bat duen norbaiten eskuetan ipintzea (ikastetxe berria eraikitzea, adibidez); eta ibiltaria izatea.

Zer aldatu da ordutik hona?

Aldaketa nagusia beharra da, orduan premia handiagoa zen; gaur egun, badira laguntza publikoak. Horrelako ekintza bati egun bakarrean ahalik eta etekin handiena ateratzea zen kontua. Horatik dator Kilometroak izena; bakoitzak ibiliko zen kilometro bakoitzeko hainbesteko bat ordaintzen zuten laguntza modura. Egundatekoa zena, gaur egun, marketin teknologien bidez, Kilometroak markaren bueltan urte osoko ekitaldien bilduma izatera pasa da. Ikastolen elkarteari saldu genion kontzeptua ez zen Beasainen asmatutako erokeria hutsa, baizik eta euren eskuetan frankizia bat ipini genuen. Beharra duenari marka edo ideia hori esplotatzen uzten diogu eta Ikastolen Elkartea da frankizia horren jabe. Kilometroak elementu materialista bat da, baina maitasunezkoa. Hortaz, Kilometroak litzateke maitasunaren bidez etekinak lortzea.

Orduan nola ikusten zenuen kilometroen etorkizuna?

Idea entzun zutenei esan nien etorkizuna izango zela izaten ari dena; barre egin zuten, baina zorionez nire ustea bete da. Proiektuak haziak bezala dira. Hazi hori lur emankorrean sartuz gero sekulako emaitzak ematen ditu. Hazi hura oso ona zen eta lur emankorrean sartu genuen, ikastolen munduan, eta emaitzak begi bistan dauzkagu.

Gaur egun zer iruditzen zaizu Kilometroak jaia?

Bat egiteko kontzeptua da; jatorrizko ideari erantzuten eta jarraitzen dio; gure herriaren ondare bihurtu da eta nire apalatasunean oso pozik nago horren lagungarri izan naizelako.

Modu berezian hartzen duzu parte Kilometroetan?

Oso modu berezian, beste edonork bezala. Euskaldun naizen heinean hartzen dut parte ekitaldi zoriontsu horretan. Ez diot nire buruari dominarik jartzen, jaiari poza eta plazerra baizik.

Zein iritzi duzu sortu diren antzerako jaien gainean?

Guztiak dira Kilometroen seme-alabak eta aita edo ama bezala oso harro dago seme-alabez.

**"Ez diot nire buruari dominarik jartzen, Kilometroak jaiari poza eta plazerra baizik"**

**"Txalotzekoa da lantaldeek jarritako maitasuna, ilusioa eta dedikazioa"**



Josu Erguinek AEBetatik ekarri zuen Kilometroen oinarri izan zen ideia. GOIENKARIA

Gaurko Kilometroei buruz zer esan zenezake?

Aurrekoetan bezala talde bat egon da lanean. Kilometroak ez da pertsona bakarraren emaitza, talde batena baizik. Emaitza ibiltaria izanik herri bakoitza saiatzen da aurrekoek egindakoa hobetzen; erronka badago nork hobe egin, nola nork bere nortasuna itsatsi. Urteak pasa arren izugarria da ikustea nola jendeak bere egiten duen Kilometroak eta

urtean barrena egin behar diren lanak musu-truk egiten dituen. Kilometroetatik gehien baloratzen dudana da lehendabiziko ediziotik urtero lanean jardun duten taldeek jarri dioten maitasuna, ilusioa eta dedikazioa.

Nola ikusten duzu Kilometroak jaiaren etorkizuna?

Hitzak berak esaten du: Kilometroak, Kilometroak, Kilometroak... Beti aurrera.



50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA  
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga  
Eguren, S. L.**

Juan XXIII plaza  
Tel. eta Faxe: 943 76 11 88  
20570 BERGARA

**Kilometroekin bat!**



INMUEBLE AGENTZIA

DEBA  
GARAIA

BERGARA • ARRASATE • ELGOIBAR • DONOSTIA

API: Jesus Maria Markalde Sanpedro


T. Aranzadi 2 behea  
20570 BERGARA  
TEL.: 943 76 21 80 - 943 76 06 37  
FAXA: 943 76 06 37

ARGIDAKU






943 71 23 90



**batu-banatu**

*banaketak buzoietan Debagoiengan.*

**Argi daukagu!**



**metagra**



# JUBAR®

ATEAK, S.L.


Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17  
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@euskalnet.net



Jubarren ere, **Argi daukagu!**



- Garajeko atek
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



## ITESA TALDEA

-ITESA-  
-JEAN Y CHAUMONT BERGARA-  
-FELIX GABILONDO-



JEAN Y CHAUMONT  
BERGARA S.L.  
Tratamiento de superficies

“Azaleko Tratamentu eta Estaldurak”

San Juan auzoa , 7  
20570 BERGARA

itesa



KILOMETROAK 91 &gt; EUROPEAN OSPATU ZEN JAIA BERGARAN

# Txarra egin arren, arrakastatsua izan zen orain dela 16 urteko Kilometroak

Ez da lehen aldia Bergaran Kilometroak antolatzen dena; askok gogoan izango dute 1991n ospatu zen hura: eguraldiak ez zuen lagundu, baina...

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, ez, baina arrakastatsua izan zen 1991ko Kilometroak hura.

Eguna hodeiz estalia esnatu zen eta euri zaparrada ederrak bota zituen lehen orduan eta goiz partean, eguerdi aldera arte. Gero hobera egin zuen eta ostarteak ireki ziren zeruan arratsalderako. Edozelan ere, 80.000 lagun elkartu ziren Bergaran. Arrakastatsua izan zen, hortaz. Antolatzaileak pozik agertu ziren. Urriaren 6an ospatu zen Kilometroak urte hartan.



HASIERAKO EKITALDIA European, aureskua, Kilometroak hasteko; aldamenean, boluntarioak lanean eta Labegarrietako gunea.



GOIENKARIA

## ANTZEKOTASUNAK

Egitarauari dagokionez, oraingoarekin antzekotasunak eta ezberdintasunak: umeendako jolasak eta dantzariak, batik bat; orain ere badaudenak. Baina orain baino musika talde gutxiago: Egan, bakarra, baina baita Mikel Markez eta Kaxiano, hainbat trikitilari eta bertsolari, Bergarako Udala Musika

Banda eta orkestra sinfonikoa. Horretaz gain, herri kirolak... Alderantziz, aurtengo Kilometroetan 21 musika talde edo bakarlarari izango dira.

Bestalde, urtean zehar ez ziren ekitaldiak antolatuta; oraingoan bai, ordea; asko, gainera. Hori bai, iraileko azken bi asteetan Kultura Hamabostaldi mardula

egin zuten eta ekitaldi piloak antolatuta zituzten: herri ekitaldi pilotalekuan, herriko musika, dantza... taldeekin, 60ko hamarkadan famatu egin ziren Urretxindorrek eta Ameslariak taldeen berragerekin. Kirol ekitaldiak ere bai: Arrasate Xerox eta Mepapsa San Antonio taldeen arteko eskubaloitako partidua eta Realeko eta

Athleticeko beteranoen artekoa; Ruper Ordorika eta Mikel Laboa frontoian izan ziren; pilota argazkien erakusketa antolatuta zuten; ardi txakurren erakusketa Golan; zinema emanaldiak; kirolaren gainera mahai-ingurua, besteak beste Sabino Padilla eta Marino Lejarretarekin, Mikel Olazabal kazetariak gidatuta; mendiko bizi-

kleta lasterketa... Eta, bezperan, Hertzainak taldearekin kontzertua Txibiston.

## BURU GORRIDUN 'K' URDINA

1990eko abenduan, Santo Tomasean, aditzera eman zuen Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Aranza-

(36. orrialdean jarraitzen du)

# ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

## Energia fotovoltaikoa

## Energia termikoa

## Geotermikoa



**Ondo ibili  
Kilometroetan!**

Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

620561316 / 669366953 • Faxe: 943762052

e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com

Erregistro industrialak: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua









## LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna  
baina 10 urte  
hauetako emaitzak  
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO  
LANA EUSKALDUNTZEKO  
DINAMIKAN MURGILDUTA  
ZAUDETEN GUZTIOI



### JARDUNALDIA MOTIBAZIOA eta HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

NOIZ: 2007ko URRIAK 9  
LEKUA: Gandiaga Topagunea. ARANTZAZU. OÑATI  
IZEN EMATEA: [www.emun.com/10urte/jardunaldia](http://www.emun.com/10urte/jardunaldia)

### OSPAKIZUN EKITALDIA ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24  
LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE  
ORDUA: 17:30



Informazio gehiago: [www.emun.com/10urte](http://www.emun.com/10urte)  
[www.lantalan.com](http://www.lantalan.com)



# Kilometroek urtean eman dituzten irudiak



Bergara-Reala beteroen futbola.



Alberto Iñurrategi.



Kilometroetako logotipo guztiak.



Moda desfilea.



Donostian, aurkezten.



Mendi bizikleta irteera.



Bertsolari gazteak.



Mahai futbol txapelketa.



Erramu Zapatuan, txosnetan fin lanean.



Herri kirolen jaia Kilometroen alde.



Abestiaren aurkezpen jaia frontoian



Goñi, Zezeaga... ere Kilometroetan.



Oartzunen, lekukoa hartzen.

Kilometroetako abestia grabatzen: *Argi da!*

Bergaran ere aurkeztu zen Kilometroak 07.




Zirkuitua ezagutzeko txangoa, Agarre aurrean.

**ELUSU ERAIKUNTZAK**

**K21**  
KALITATEA  
1 / 05 / 128

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformatak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuta gaude**



  
**ARGI DAUKAGU**

**Arruriaga 5**  
**943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45**





**OROILORE**  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## Hileta zerbitzu eta beilatoki berria

*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da.*

- Zerbitzu etengabea 365 egunean
- Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egiteko: etxera, ospitalera...
- Erantzun azkarra, tratu pertsonala
- Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
- Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak
- Bete beharreko tramiteak
- Gorpua prestatu eta dotore ipini
- Zerraldo aukera, denetariko prezioak
- Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko



Amillaga 27, Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxe: 943 76 94 76  
**Zerbitzua Debagoiena osorako**





Tel. 943 72 52 50 • Fax 943 72 58 70 • E-mail: [goierribus@euskalnet.net](mailto:goierribus@euskalnet.net)  
[www.goierribus.com](http://www.goierribus.com)



Kilometroekin bat eginez





LOGOTIPOAK > JAIAREN AURPEGIA

# Kilometroetako irudi guztiak batera

Kilometro guztietako logotipoak batu ditugu, aurtengoa izan ezik; denetarikoak daude 30 horien artean

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Era guztietakoak aurkituko ditugu. Batzuei gustatuko zaie hau, beste batzuei beste hori. Logikoa da. Denek izan dute funtzio bat, ordea: urte horretako Kilometroetako aurpegia izatea. Lehenengo aldiz antolatu zenean, 1977an, ez zuten logotiporik egin, baina kartel bat, Antton Olariagak egindakoa, erabili zuten jaia iragartzeko.

Urte batzuetatik aurrera, logotipoarekin batera, leloa erabiltzen ere hasi ziren, eta gaur egun ohikoa da biak erabiltzea: logotipoa eta leloa, herriko ikastolaren mezua ezagutarazteko.

ERAKUSKETA

Aurtengo ekitaldien artean, logotipo erakusketa aipa daiteke. Kilometroak antolatu diren 31 herrietako ikastolakoek eginitako artelanak Bergarako Aroztegi etxean egon ziren ikusgai.





MUSIKA &gt; KILOMETROETAKO ABESTIA

# Aurtengo Kilometroetako abestiaren bi aurpegiak: country eta house doinuak

Country doinu dantzagarria da aurtengo abestiaren oinarria

Eneko Baltzategi DJak egin du jatorrizko abestiaren house moldaketa

MAIDER ARREGI > BERGARA

Kilometroak jaiak badauzka abesti eta bideoklip propioak: *Argi da!* Belceblues taldeak eta Jarduneko bertso eskolakoek egin dute abestia. Country estiloko doinu dantzagarria da, lehen entzunaldian erraz sartzen den horietakoa. Hain zuzen, komertziala eta erraz harrapatzekoa, horixe zen baldintzetako bat.

Asier Elortza Belceblues taldeko kide eta Aranzadi ikastolako irakasle denak azpimarratu du Kilometroetako abestiak alaia izan behar duenez, Country erritmo bizia eman diotela abestiari eta ahotsak blue-grass estiloan landu dituztela. Asier Elortzak egin du abestiaren musika.

Letra, berriz, Jarduneko bertso eskolakoek jarri diote. Enaitz Alustizak, bertso eskolako kideak, adierazi digu erronka polita izan dela bertso eskolarentzat.



ABESTIAREN BI MOLDAKETAK Ezkerrean *Argi da!* abestia hedabideen aurrean aurkezten. Eskuinaldeko argazkian, berriz, Eneko Baltzategi DJa.

## HOUSE BERTSIOA

Eneko Baltzategi disko jartzaile bergararrak egin du house moldaketa. Ahotsak eta haizezko instrumentuak erabili ditu batik bat. Dioenez, "jatorrizko bertsioa oso egokia da Kilometroak bezalako jai baterako; baina nik nire estilo propioa jarri diot abestiari, uda ostean gori-gori egon zedin oraindik, eta ahaztu ez zedin". Eta udan Kilometroetako abestia nahasten ibili da. Bertsio elektro-

nikoa da, dantzagarria hura ere, dancea, baina Eneko Baltzategik horrela definitzen du: "Techno-house minimal estilokoa dela esango nuke".

Eneko Baltzategik 26 urte dauka. Bartzelonan bizi da eta Soinu Teknikari ikasketak egiten dihardu bertan. Arrasate eta Bergarako hainbat disko jartzailek osatzen duten Kogollo Party Krew gazte kolektiboko kide ere bada Baltzategi.



GOIENKARIA

'ARGI DA!' ABESTIA ENTZUNGAI IKASTOLAKO EGUNEAN

## Ikastolako gunean abestia entzungai

Belceblues talde bergararrak Kilometroetako abestia joko du ikastolako gunean 17:30ean eskainiko duen kontzertuan. *Argi da!* abesti dantzagarria, beraz, zuzenean entzuteko aukera izango dute hara joaten direnek.

Ekainaren 8an aurkeztu zuten abestia jendearen aurrean, herri jaialdian. Dozena bat musikarik osatutako taldean, bizkarrezurra Bergarako Belceblues taldea da (baxua, gitarra eta bateria). Eta beste dozena bat neska-mutikok -Aranzadi Ikastolako ikasleak- umeen korua osatu dute. Guztira 25 laguneko taldeak grabatu du abestia.

Optika  
**P. MANSO**

OPTIKO OPTOMETRISTA

**Argi daukagu**

Irizar pasealekua 2  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefona: 943 76 27 86



**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA  
ETENGABEKO ZERBITZUA  
LORE KOROAK  
ESKELAK  
TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

Amilaga 39 BERGARA • Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net



**arteman**  
KOMUNIKAZIOA

**baietz asmatu ;-)**  
[www.arteman.org](http://www.arteman.org)



**Hiribarren 32**  
**20210 - LAZKAO**  
Tel.: 943 88 07 50  
Faxa: 943 88 03 65

**Telleria 8**  
**20570 - BERGARA**  
Tel.: 943 76 93 55  
Faxa: 943 76 92 64

**Epele Bailara 38**  
**20120 - HERNANI**  
Tel.: 943 33 50 07  
Faxa: 943 33 50 78



KAMISETAK &gt; UDAKO ARGAZKIAK

# Mundu osoan banatu dituzte bergararrek Kilometroetako kamisetak, udan



**Tal Mahal, India.** Onintza Egaña Aranzadi ikastolako irakasleak eta Haritz Gallastegi mutil-lagunak Taj Mahal eraikin dotorea bisitatu dute udan eta han, India, ezagutu dute argazkiko mutikoa. Gurasoek janari denda bat zuten eta botila bat ur erosi zieten. Adiskidetu, Kilometroetako kamiseta erregalatu eta argazkia atera zioten.



**Hvar irla, Kroazia.** Agurtzane Crespo eta mutil-laguna Kroazian izan dira udan. Dubrovnik, Hvar irla eta halako leku zoragarriak bisitatu dituzte. Hvar-en atera dute argazkia.



**Tulum, Mexiko.** Itsas bazterrean dauden maiarren eraikinen hondakinak ikustera joan ziren oporretara bergarar horiek: Iñaki Muxika, Nagore Iñurrategi, Iban Agirrebeña eta Aitziber Arrieta. Haien erdi-erian, hoteleko harreragile mexikarra. Kilometroetako kamiseta oparitu eta argazkia atera zuten elkarrekin.



**Ibo uhartea, Mozambique.** Ibon Muruamendiaraz, Iñigo Idigoras eta Garikoitz Lazkano bergararrak Mozambiken ezagutu dute Sahid mutikoa. Egun bi eman zituzten oporretan han eta Sahid hurbildu egin zitzairen. Kamiseta oparitu eta irribarretsu jarri zen bergararrekin: klik! Lazkanok atera zuen.

API



INMOBILIARIA

BERGARA

Ibargarai 3 - Tel.: 943 76 97 97

ANDONI LOPEZ DE HEREDIA  
AGUIRREZABAL

LEGAZPI

Santikutz 8 - Tel.: 943 73 05 25

[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

LAB

langile abertzaleen batzordeak

BERGARA:

Telefonoa: 943 76 01 89

Faxa: 943 76 42 74

E-posta:

[bergara@labsindikatu.org](mailto:bergara@labsindikatu.org)Egoitza: Ibargarai hiribidea 39  
behea.

ARRASATE:

Telefonoa: 943 79 74 08

Faxa: 943 77 07 02

E-posta:

[arrasate@labsindikatu.org](mailto:arrasate@labsindikatu.org)

Egoitza: Garibai Etorbidea 14-2

OÑATI:

Telefonoa: 943 71 88 42

Faxa: 943 71 88 43

E-posta:

[onati@labsindikatu.org](mailto:onati@labsindikatu.org)





**Sitala**  
2001 S.L.



**Argi daukagu**



**CONSORT**  
2000 S.L.

**IDERMES, S. L.**



**250**  
*lagunentzako  
jantoki berritua!*



**LASA** jatetxea

Ozaeta jauregia  
Tel.: 943 76 10 55  
**BERGARA**



KILOMETROAK 08 &gt; IRURAKO IKASTOLAK ANTOLATUKO DU

# Gaur hartuko du lekukoa Irurako ikastolak, Kilometroak 08 antolatzeneko

Irurako ikastola izango da datorren urteko Kilometroak jaiaren antolatzailea

Gaur hartuko dute lekukoa hango ikastolakoek, Aranzadi ikastolako eskutik

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Herri txikia da Irura. 1.400 biztanle ditu. Baina azkenaldian hazi egin da asko eta batez ere gazte jendea ikusten da kalean. Irurako ikastola ere tamainakoa da, txikia, beste batzuekin alderatuta. 140 ikasle, 12 irakasle eta beste langile bi ditu. Honako eskaintza akademikoa dauka: 2 urteko gela, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Kooperatiba elkarte moduan antolatuta daude eta datorren hilean herri onurarako kooperatiba elkarte izendapena jasoko dute. 1977an sortu zen.

Une honetan ez dute eraikin propiorik. "Herrian sakabanatuta dauzkagun eta Udalak utzitakoak diren hainbat eraikin erabiltzen ditugu: Haur Hezkuntza daukagu eraikin batean, Lehen Hezkuntza beste batean; gero, gainera, gela horiek arratsaldean



HERRI IKASTOLA Irurako ikastolako neska-mutikoak irakasleekin batera ateratako familia argazkian.

IRURAKO IKASTOLA

erabiltzen dira ludoteka, liburutegi... bezala; barrakoi batean ere baditugu ikasle batzuk; jangela apaizaren etxean...", dio Marisa Alvarez zuzendari pedagogikoak.

Instalazio arazo horiei aurre egiteko ikastola berria eraikitzen dihardute. Dagoeneko hasiak dira zeregin horretan eta lehen fasea datorren udaberri aldera-

ko amaituko dute. Orain egiten dabilzana Lehen Hezkuntzakoendako bakarrik izango da: ikasleendako gelak, idazkaritza, liburutegia, ordenagailu gela, areto bat... izango ditu. Bigarren fasean, urte batzuk barru, Haur Hezkuntzakoendako gelak eta jangela egingo dituzte. Datorren urteko Kilometroetan ateratako dirua

bideratuko dute ikastola berria finantzatzeko laguntzera. Izan ere, honela finantzatu da: "Udalak 300 mila euro pasa (50 milioi pezeta) jarriko ditu; beste horrenbeste Partaideren solidaritate kutxatik etorriko da; beste horrenbeste ikastolak hartuko du bere gain mailu bidez eta beste horrenbeste Kilometroetan lortu nahi dugu".

DATUA

# 1.200

EURO IKASTOLA EGITEKO

Ikastola berria egin nahi dute Irurakoek eta horretarako baliatu nahi dute datorren urteko Kilometroak, horrekin ezin izango duten arren guztia ordaindu

DAGOENEO LANEAN

Iazko martxoan jakinarazi zitzaion Irurako ikastolari datorren urteko Kilometroak jaia antolatzeneko ardura izango zutela. Eta berehala hasi ziren lanean. Hala, nahikoa aurreratuta dauzkate hainbat kontu: logotipoa, leloa, arropak, bulegoa, arropak saltzeko eta gordetzeko lokala eta biltegia, batzordeburuak... "Herri eta ikastola txikia dira gureak eta dagoeneko urduri jarriak gara", dio Josune Aiestaran zuzendari gerenteak. Denda Tolosako alde zaharrean ipiniko dute, Kutzak lagatako lokal batean.

Azaroaren 10ean aurkeztuko dituzte logotipoa eta leloa Irurako pilotalekuan eta 18an hasierako ekitaldia egingo dute Tolosako Leidorren, besteak beste arropak erakusteko moda desfilearekin; hurrengo egunean irekiko dute denda. Tolosalde gutira zabaldu nahi dute Kilometroak jaia Irurakoek.



eusko  
alkartasuna

## Argi daukagu!

Barrenkale 18, 1  
Tel./Faxa: 943 76 26 81  
[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)



[www.gazteabertzaleak.org](http://www.gazteabertzaleak.org)

**OMEGA**



**Omega Elevator, s.a.**

Megalift Gearless igogailu elektrikoak, makina gelarik gabe.

Igogailuak auzo-komunitateetan jartzea

Igogailu hidraulikoak

Igogailuen berritzea

Tel.: 945 29 03 08

[www.omegaelevator.com](http://www.omegaelevator.com)

Vitoria-Gasteiz



# UGARTE

## AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



# OGIZUN

koop. elk.

## okindegia

**Ondo pasau  
Kilometroetan!**

**Laster Arrizubiaga parkean**  
(Ibargarai ondoan - BERGARA)

Argazkia Kiñu



Peio Ospital > Abeslaria

## "Jai erraldoi hauek beharrezkoak dira elkarri adorea eta kemena emateko"

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Bigarren gunean, Usondon, aurkituko ditugu Pantxoa eta Peio abeslari lapurtarrak, 15:30ean. Ez datoz lehenengo aldiz Bergarara, ez horixe, Hegoaldean emandako lehen kontzertua Bergaran egin zuten eta. Peio Ospitalekin jardun dugu orduko eta oraingo kontuen gainean.

**Hegoaldean eman zenuten lehen kontzertua Bergaran izan zen; ze oroitzapen dituzu?**

Egia da Hegoaldean eskaini genuen lehen kantaldia Bergaran izan zela, 1971ko apirilaren 3an edo 4an, Irala zinema gelan; beraz, Franco hil aurretik izan zen. Gogoratzen naiz Jose Mari Iriondok –garai hartan Loiolako Herri Irratian lan egiten zuen– dei egin zigula. Ordurako bi urte ziren kantatzen hasiak ginela publikoan eta gure errepertorioa nahiko motza zen, hamar bat abesti genituen. Baina gogoratzen naiz batez ere sekulako ikararekin kantatu genuela; mila bat entzule izango ziren zinema gela hartan eta harrituta eta ikaratuta geratu ginen. Oroitzapen hunkigarria da, gainera jakinik Monzonen herria dela. Eta ordutik hona lau edo bost aldiz abestu dugu Bergaran.

**Telesforo Monzon bergararren berbei musika jarri diezue?**

Monzonen kantuei doinurik guk ez diegu jarri, harenak dira bai letra eta bai doinu. Bakarrik interpreteak izan gara eta gaude. Gainera, gure errepertorioan Monzonen abestiak zazpi dira orotara, zazpi bakarrik, baina arrakasta handikoak.

**Kilometroetara eta ikastolen aldeko antzeko jaietara gustura joaten zara?**

Oso gustura. Lehenengo Kilometroetan egon ginen Beasainen, orain ez dut gogoratzen zein urtetan. Baina niri asko gustatzen zait jendearekiko harreman zuzena; kantatu bai, baina jendearekin egon. Nafarroa Oinez-en



Peio Ospital eta Pantxoa Carrere abeslari lapurtarrak.

ZUBIKOA

ere kantatu izan dugu, eta, nola ez, Herri Urratsen; hemen ere lehen-lehenean parte hartu genuen eta askotan geroztik.

**Ikastolaren eta euskararen aldeko jai erraldoiak egiten jarraitzen dugu; oraindik beharrezkoak direla uste duzu?**

Bai, uste dut beharrezkoak direla, eta ez bakarrik dirua biltzeko, baita probintzien arteko loturak indartzeko ere. Elkarri adore eta kemena emateko eta kanpokoei erakusteko gure hizkuntzaren aldeko jarrera.

**"Hegoaldean eskainitako lehen kantaldia Bergaran izan zen, 1971ko apirilean"**

**"Gure herriaren salbamenerako ezinbestekoa da bakearen garrantziaz jabetzea"**

**Lapurditik zelan ikusten da euskararen etorkizuna?**

Arazo larria da guretzat Iparraldean euskararena, eta ezkor egoteko motiboak ere badira. Baina, aldi berean, inoiz ez da orain bezain itxaropentsu egoteko motiborik izan: ikastolak, gau eskolak...

**Eta Euskal Herriaren etorkizuna?**

Hizkuntzaren arazoaz gain, bakearena da arazorik nagusiena. Gure herriaren salbamenerako ezinbestekoa da bakearen garrantziaz jabetzea.

GERTUTIK

**Herria:** Ezpeleta (Lapurdi). **Adina:** 59 urte. **Ikasketak:** Itsasuko eskolan; 10 urterekin apaiz ikastegira eta egunero bi ordu pasatzen genituen gregorianoa kantari. Handik seminariora eta filosofia ikastera. **Lanbidea:** 30 urte banketxean; orain erretiratua. **Zaletasunak:** Txirrindularitza eta pilota. **Euskal Herriko txokorik maiteena:** Itsasu. **Zeuen abesti bat:** Manex Erdozaintzi-Etxart olerkariaren *Sinesten dut*. **Ametibat:** Gizadiaren oreka bete.

**Lurra eta maitasuna azken diskoko abestiak eskainiko dituzue, baina betikoak ere bai, ezta?**

Bai, tartekatuko ditugu azken diskoko abestiak, erdi bana gutxi gorabehera.

**Zein abesti dira gehien eskatzen dizkizuetenak abesteko?**

Jendeak beti eskatzen ditu *Urtxintxak*, *Aupa Gizona*...

**Euskal Herriatik kanpo ere ematen dituzue kontzertuak...**

Nahiko gutxi ibili gara Euskal Herriatik kanpo; Madrilen bost edo sei bider, Hego Amerikan, Parisen ere bost edo sei bider, Britainian... Hil bukaeran Bartzelonara joatekoak gara.

**Eta zela hartu izan zaituztete?**

Ekitaldi hunkigarriak izaten dira; batez ere gogoan ditut Argentinan eta Venezuelan egindako jaialdiak. Baina oso hunkigarriak izaten dira Iparraldean uda aldean eskaintzen ditugun kontzertuak ere; hala nola duela hamabost egun Bidarten eskaini genuena. Kanpoko jendea ere etortzen da, baina gure herriaz eta hizkuntzaz gozatu nahiaz. Britainiako familia bat egon zen, paristar batzuk ere etorri ziren gu agurtzera eta diskoa erosi zuten. Egon da ere ingeles bat, eta duela gutxi poloniar batzuk etorri ziren Ondarroan emandako kantaldira.